


**Basque Country Estrategiaren
jarraipen txostena, 2014-2016**

EUSKADI 
BASQUE COUNTRY

2018-I-29



AURKIBIDEA

1	Sarrera.....	6
2	2014-2016 hiru urtekoan egindako ekintzen azterketa metatua	13
2.1	Ekintzen azterketa metatua eta nazioartekotze bektoreekin duten lotura.....	13
2.1.1	1. bektoreari –Euskadi kanpoan proiektatzea– lotutako ekintzen azterketa 15	
2.1.2	2. bektoreari –Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea– lotutako ekintzen azterketa	18
2.1.3	3. bektoreari –Europako esparruarekin lerrokatzea– lotutako ekintzen azterketa 20	
2.1.4	4. bektoreari –ezagutza atzitzea– lotutako ekintzen azterketa.....	22
2.2	Arlo tematikoen azterketa gai bakoitzaren nazioartekotze helburuei dagokienez	25
2.2.1	Kanpo harremanen eremua	25
2.2.2	Enpresak nazioartekotzearen eremua	25
2.2.3	Kulturaren eremua	26
2.2.4	Turismoaren eremua.....	26
2.2.5	Bakearen eta bizikidetzaren eremua	27
2.2.6	Garapenerako lankidetzaren eremua	27
2.2.7	Berdintasunaren eremua	27
2.2.8	Gobernu Irekiaren eremua.....	28
2.2.9	Herri administrazioaren eta justiziaren eremua	28
2.2.10	Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren eremua.....	28
2.2.11	Nekazaritzaren eta arrantzaren eremua.....	28
2.2.12	Enpleguaren eta gizarte politikaren eremua.....	29
2.2.13	Ogasunaren eta finantzen eremua	29
2.2.14	Etxebizitzaren eremua	29
2.2.15	Hezkuntzaren eremua.....	29
2.2.16	Hizkuntza politikaren eremua	30
2.2.17	Segurtasunaren eremua.....	30
2.2.18	Osasunaren eremua	31
2.2.19	Ingurumenaren eta lurralde politikaren eremua	31
2.2.20	Garraioaren eremua.....	31
2.3	Jardueren azterketa metatua ekintza eremu geografikoaren arabera.....	32
2.3.1	Lehentasuna duten herrialdeetako ekintzak	32
2.3.2	Lehentasunezko herrialdeetako ekintzak	33

2.3.3	Bigarren lehentasuna duten herrialdeetako ekintzak.....	34
2.3.4	Bigarren lehentasuna duten eskualdeetako ekintzak.....	34
2.4	Ekintzen azterketa metatua Ikasi/Irakatsi ikuspegitik	38
3	Ondorioak eta gomendioak	39
3.1	Jarduerari jarraipena egitea	39
3.2	Nazioartekotzeko helburuen jarraipena egitea	40
3.3	Ardatz geografikoak	40
3.4	Ardatz tematikoak.....	41
3.5	Azken ondorioa	42
I.	eranskina	43

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Basque Country Estrategian planteatutako ekintza eremu geografikoak.....	10
2. taula. 2014-2016 aldian arlo tematiko bakoitzean garatutako ekintza kopurua	13
3. taula. 2014-2016 aldiko ekintzek nazioarteko bektoreei egindako ekarpen kopuruaren eboluzioa.....	14
4. taula. Jarduerak arlo tematikoen arabera nazioartekotzeko bektore komunei laguntzen 2014an.....	43
5. taula. Jarduerak, arlo tematikoen arabera, nazioartekotzeko bektore komunei laguntzen 2015ean.....	43
6. taula. Jarduerak, arlo tematikoen arabera, nazioartekotzeko bektore komunei laguntzen 2016an.....	44

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Basque Country Estrategiak planteatutako lehentasunezko eta bigarren lehentasunezko eremu geografikoak.....	12
2. irudia. 2014-2016 aldian arlo tematiko bakoitzean garatutako ekintzak guztira (ekintza kop.; %)	14
3. irudia. Nazioartekotze bektoreei ekintzek egindako ekarpen kopuruaren banaketa 2014-2016 aldian (ekarpen kop., %)	15
4. irudia. Arlo tematikoei nazioartekotzeko 1. bektore komunari –Euskadi kanpoan proiektatzea– 2014-2016 aldian egin dioten ekarpena (jarduera kop., %)	16
5. irudia. Arlo tematikoei nazioartekotzeko 2. bektore komunari –interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea– egin dioten ekarpena 2014-2016 aldian (jarduera kop., %)	18
6. irudia. Arlo tematikoei nazioartekotzeko 3. bektore komunari –Europako esparruarekin lerrokatzea– 2014-2016 aldian egin dioten ekarpena (jarduera kop., %).	20
7. irudia. Arlo tematikoei nazioartekotzeko 4. bektore komunari –ezagutza atzitzea– 2014-2016 aldian egin dioten ekarpena (jarduera kop., %)	22
8. irudia. Nazioartekotzeko bektore komun bakoitzari laguntzen dioten ekintzak guztira, 2014-2016 aldian	24
9. irudia. 2014-2016 aldian landu diren eremu geografikoak	36
10. irudia. 2014-2016 aldian ekintza askorekin landu diren eremu geografikoak	37

1 Sarrera

Nazioartekotzeko 2020rako Euskadi Basque Country Esparru Estrategia, aurrerantzean BCE txosten honetan, Euskadi nazioartekotzeko gida-agiri politikoa da, Euskadi (Basque Country) marka eraiki eta hedatzea du helburu.

Ildo horretan, **BCEk herrialde marka batekin gure nazioarteko proiektzioa eta mundura zabaltzea sakontzen ditu**, eta, **gure indarguneetatik eta berezitasunetatik abiatu**rik, **eragile global egingo gaitu**, bikaintasunaren erreferentzia, bizitza kalitatearen eta kohesioaren eredu eta lurralde berritzaile eta lehiakor. **Kontua da euskal gizartearenak diren balioak, hau da**, esfortzuaren kultura, konpromisoa, hobetzeko gaitasuna, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna edo justizia soziala **bezalako balioak Euskal Autonomia Erkidegoari lotuta ager daitezela eta nazioartean gure aurkezpen txartela bilaka daitezela**. Helburu hori lortzeko ezinbestekoa da atzerriko euskal komunitatearekin harremanak eta loturak estutzea eta euskaltasunarekin hurbiltasuna sentitzen duten pertsonekin, gure herrialdeak nazioartean duen posizioa sendotzeko oinarritzkoa da eta.

Horrela, **Euskadik eragile global baten moduan kokatu behar du**; presentzia irabazi behar du nazioarteko jokalekuan. **Euskadiren kanpo proiektzioak Europan eta nazioartean espazio propio bat lortzeko balio behar du** helburu argi batekin: **euskal interesak bultzatzea, gure identitatea eta balioak proiektatzea eta horietan sakontzea, eta horrekin batera nazioarteko ordena berri zuzenago eta iraunkorrago bat eratzen laguntzea**, pertsonen zerbitzurako.

BCEren sorrera **Eusko Jaurlaritzak bultzatu** zuen, nazioarteko proiektzioa eta kanporako irekitasuna ezaugarri izango dituen egoera bat sortzeko, horrela, **aldi berean, hainbat arlotako (zientzia eta teknologiarena, kulturarena, osasunarena, ingurumenarena eta abar) nazioarteko abangoardiarekin harremanak ezarri eta/edo mantendu** ahal izateko, nola eta ikuspenak eta jokabide onak elkarri erakusteko eta ezagutza berria atzitzeko eremu bat sortzea bultzatuz, hori guztia globalizazioa eta interdependentzia gero eta handiagoak direnean eta **kanpoko euskal komunitateekin harremanak sendotu eta estutzeak hil edo biziko garrantzia hartu** duenean.

Euskadi nazioartekotzea Europar Batasunari begira dago lehen mailan, estatuz gaineko eremu horrek gure eskumenak gauzaterakoan eragin erabakigarria duelako eta gure produktu eta zerbitzuen merkatu nagusia delako. Horregatik, **funtsezkoa da gure ahotsa helaraztea eta zuzenean parte hartzea subsidiarotasun printzipioak eta maila anitzeko gobernantzak gidatutako Europa federal bat osatzeko Erkidegoaren erabakitze prozesuetan**. Aldi berean, EBn dugun presentziak oihartzuna izan behar du lankidetzat handiagoa izanik eta sinergiak aprobetxatzen Europako eskualde lehiakor eta berritzaileekin eta geure errealitatearekin osagarritasunak dauzkatenean.

Europarekin batera, Euskadik beste eremu geografiko batzuetan areagotu behar du bere presentzia, eta arreta berezia jarri herrialde eta eskualde gorakorretan. Horrela, bada, **Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko estrategiak hainbat bidetatik lortu nahi duena erakundeek eta gobernukoak ez diren eragileek erreferentziako sare transnasionaletan partaidetza zabalagoa izatea posible bihurtzea da**.

BCEren ikuspenak, "Euskadi eragile global moduan kokatzea XXI. mendeko abangoardian, Europaren eraikuntzan espazio berekia duela, Herrialde erakargarria,

oso lehiakorra, bere bakantasunagatik, giza garapen iraunkorraren maila handiagatik aitortua, solidarioa, munduari irekia eta atzerriko euskal komunitatearekin estu konektatua", aipatutako mugarrak eta X. Legegintzaldiko Gobernuaren Programan azaldutako helburuak laburbiltzen zituen.

2016ko azaroan hasi zen **XI. legegintzaldiari** dagokionez, **BCEk–2016-2020 Gobernu Programaren Herrialde helburuei erantzuten die.** Halaber, **Estrategia XI. Legegintzaldiko Jaurlaritzaren Programan** jasotako *15 plan estrategikoetako* bat da, eta bere esparrua *Programako I.1 ardatza. Hazkuntza sendoa enplegu gehiago eta hobearekin* da, hiru konpromiso lotuta dituena (21, 22 eta 23 konpromisoak).

Aipatutako BCEren ikuspenak nazioartekotzeko helburu estrategiko multzo bat ondorioztatzen du, eta horiek era berean **nazioartekotzeko lau bektore komun** hauetan daude jasota:

- *V1. Euskadi kanpoan proiektatzea*
- *V2. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei erantzuten laguntzea*
- *V3. Europako esparruarekin lerrokatzea*
- *V4. Ezagutza atzitzea*

Lau bektoreetako lehenak –**V1. Euskadi kanpoan proiektatzea**– apustu egiten du **Basque Country marka taldean eraikitzearen** alde, hau da, elkarlan ariketa publiko-pribatu batean, erakunde guztiek, Euskadiko eragile ekonomiko, kultural eta sozialekin batera, erreferentzia diren zertzeladak eta politika publikoak bultzatu ditzaten.

Euskadik faktore bereizleak ditu bere nazioarteko proiektzioa horien gainean egituratzeko, hala nola, hizkuntza eta identitate propioak edo autogobernua eta politika industrialean ibilbide luzea. Ildo horretan, Herrialde marka edozein euskal eragileari laguntzeko tresna bat da nazioarteko garapenean, zutabe bereizleetan oinarritutako aurkezpen gutuna izateaz gain.

Euskadi nazioartean kokatzea da helburu nagusia nazioartekotzearen bektore komun honetan, eta horretarako lurraldearen berezitasunetan oinarritutako marka irudi bat garatu eta zabaldu behar da. Nazioarteko eztabaidagune eta sareetan presentzia areagotzea da erabili diren mekanismoetako bat **kanpo proiektzioari laguntzeko eta talentua erakartzeko**, bai eta bere garapenerako aukera berriak detektatzeko ere.

2. bektoreak –Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei erantzuten laguntzea– lehiakortasuna hobetzea, gizarte-, ekonomia- eta enpresa-ehuna indartu eta garatzea eta enpresak eta beste eragile sozioekonomikoak nazioarteko merkatuetan jarduteko duten gaitasuna planteatzen ditu helburu nagusi modura.

Eusko Jaurlaritzako sailek eta lotura duten erakundeek Euskadiren *know how*-aren bultzagile gisa dihardute, eztabaidagune guztietan azalduz erabili diren jokabide onak eta esperientzia. Ildo horretan, euskal administrazioaren kanpo harremanek hartu duten norabidea **euskal eragileen nazioartekotze prozesuari lagunduko dioten aukerak detektatzera eta mekanismoak identifikatzera** bideratuta dago, eta euskal eragileen

nazioarteko presentzia areagotuko duten **alde anitzeko erakundeekiko harremanak areagotzearen eta kanpoko proiektuak garatzearen** alde alde dabil.

Europar Batasuna bere osotasunean lehentasun handiko eremua da Euskadiren nazioarteko jarduera garatzeko, eta horregatik **3. bektoreak –Europako esparruarekin lerrokatzea– euskal eragileen presentzia EBtik bultzatutako mekanismo, programa eta proiektuetan euskal eragileen presentzia areagotzea** bilatzen du.

Garapenerako lankidetzak, aliantza estrategikoak eta nazioarteko eztabaidagune edo sareak dira Euskadik dituen mekanismoetako batzuk, interes estrategikoko programetan presentzia indartzeko. Halaber, **mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzak lehentasunezko ekintza eremu bat da Euskadirako, eta horren bitartez eskualde homologoekin eta interes berdintsuak dituztenekin integratzea lortuko du.**

Ezagutza atzitzea eta nazioarteko aliantzak bilatzea beste erronka handietako bat da Euskadirako. **4. bektorearen bitartez –Ezagutza atzitzea–, BCEk herrialde eta eskualde bikainekin harremanak izateko premia planteatzen du, bai eta elkarlanerako akordioak ere proiektu bateratuak egiteko, esperientzia eta ezagutza alde bien onerako trukatzeko aldera.**

Ildo horretan kokatzen da talentua erakartzeko apustua, eta Euskadi gazte profesional ondo prestatuentzat leku erakargarria izateko eta euren esperantzak asetuko dituen garapen profesionala lortzeko lekua izan dadin lan egitea.

Hasieran **BCEk 19 ekintza eremu tematiko** zehaztu zituen eta aplikatu zen lehen bi urtealdietan **kontuan hartu ez ziren eremu berri bi agertu ziren eta funtsezkotzat jo da biak sartzea**. Eremu horiek hauek dira: Ogasuna eta Finantzak eta Gobernu Irekia.

Hogeita bat eremu tematiko horietako batzuk beren izaeragatik nazioartekotzeari zuzenean lotuta badaude ere (kanpo harremanak, enpresak nazioartekotzea, kultura eta turismoa), guztiak **lagun dezakete, gehiago edo gutxiago, Euskadi nazioartekotzen**. Estrategian ezarritako eremu guztiak hauek dira:

1. Kanpo harremanen eremua
2. Enpresak nazioartekotzearen eremua
3. Kulturaren eremua
4. Turismoaren eremua
5. Bakearen eta bizikidetzaren eremua
6. Garapenerako lankidetzaren eremua
7. Berdintasunaren eremua
8. Gobernu Irekiaren eremua
9. Herri administrazioaren eta justiziaren eremua
10. Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren eremua
11. Energiaren eremua
12. Nekazaritzaren eta arrantzaren eremua

13. Enpleguaren eta gizarte politiken eremua
14. Ogasunaren eta finantzen eremua
15. Etxebizitzaren eremua
16. Hezkuntzaren eremua
17. Hizkuntza politikaren eremua
18. Segurtasunaren eremua
19. Osasunaren eremua
20. Ingurumenaren eta lurralde politikaren eremua
21. Garraioaren eremua

Bestalde, *BCE*k **Euskadi nazioartekotzeko estrategikotzat jotzen diren ekintza eremu geografikoak** ezartzen ditu, baina eremu horiek eta eremu horien lehentasun mailek ez dituzte baztertzen beste zona batzuetan sor daitezkeen aukerak.






Herrialdeak eta eskualdeak lehentasun maila bitan banatzen dira, nahiz eta guztiek osatzen duten aukeren eremu bat eremu tematikorik gehienetarako. Lehen mailan **lehentasuna duten herrialde eta eskualdeak** daude, *Eusko Jaurlaritzaren* sailen eta lotutako erakunde publikoen interesik handiena biltzen dutenak, eta bigarren mailan **bigarren lehentasuna duten herrialde eta eskualdeak** jasotzen dira, ekintza eremu tematiko gutxiagotan sortzen dutelako interesa.

Sailen eta lotutako erakundeen interesen eta motibazioen arabera, ekintzak tipologia bitan sailkatzen dira: ikasi eta neurtzekoena eta irakatsi eta trukatzekoena.

Tipologia horietako lehena, **ikasi eta neurtzekoena**, Euskadirako erreferentzia diren bete herrialde edo eskualde batzuetan egiten diren jokabide onak eta esperientziak ezagutzera bideratuta dago. Bigarrena, **irakatsi eta trukatzekoena**, Euskadiko Administrazioaren eta eragile sozioekonomikoen politika publikoak diseinatu eta martxan jartzeari buruzko ezagutza nazioartera transferitzeko da.

1 *Eusko Jaurlaritzarako* lehentasun mota biak dituzten eremu geografiko, herrialde eta eskualdeak ageri dira, eta horien jarduera eta nazioarteko garapena, bai ikasi eta neurtzeko ikuspegitik bai irakatsi eta trukatzeko ikuspegitik.

1. taula. Basque Country Estrategian planteatutako ekintza eremu geografikoak

ÁMBITOS GEOGRÁFICOS DE ACTUACIÓN		PAÍSES Y REGIONES PRIORITARIOS		PAÍSES Y REGIONES PREFERENTES	
		APRENDER Y MEDIRSE	ENSEÑAR E INTERCAMBIAR	APRENDER Y MEDIRSE	ENSEÑAR E INTERCAMBIAR
 EUROPA	Países	<ul style="list-style-type: none"> • Unión Europea • Países Nórdicos • Alemania • Dinamarca • Francia • Reino Unido 	<ul style="list-style-type: none"> • Unión Europea • Países Nórdicos • Alemania • Francia • Reino Unido 	<ul style="list-style-type: none"> • Holanda • Irlanda 	<ul style="list-style-type: none"> • Rusia • Turquía
	Regiones	<ul style="list-style-type: none"> • Aquitania • Baviera 	<ul style="list-style-type: none"> • Escocia • Flandes 		
 AMÉRICA	Países	<ul style="list-style-type: none"> • Estados Unidos 	<ul style="list-style-type: none"> • Estados Unidos • América Latina • México • Brasil • Colombia • Perú 	<ul style="list-style-type: none"> • Canadá 	<ul style="list-style-type: none"> • Argentina • Chile
	Regiones			<ul style="list-style-type: none"> • Querétaro 	
 ASIA	Países	<ul style="list-style-type: none"> • Corea • India • Singapur 	<ul style="list-style-type: none"> • China • India 	<ul style="list-style-type: none"> • Japón 	<ul style="list-style-type: none"> • Malasia • Indonesia • Vietnam
	Regiones			<ul style="list-style-type: none"> • Jiangsu 	
 AFRICA	Países		<ul style="list-style-type: none"> • Sudáfrica 		
 ORIENTE MEDIO	Países			<ul style="list-style-type: none"> • Israel 	<ul style="list-style-type: none"> • Países del Golfo

Iturria: Basque Country Estrategia

Lehentasuna duten herrialde eta eskualdeen artean Europa nabarmentzen da, eta, konkretuago, Europar Batasuna. Euskadik Europaren eraikitze prozesuan modu aktiboan parte hartzen jarraitu nahi duelako eta Euskadik Europar Batasunean duen jokoaren sendotu nahi duelako izan liteke Europaren gailentze hori.

Lehentasunezko herrialde eta eskualdeen artean hauek dira behinenak:

- **Europar Batasunean iparraldeko herrialdeak dira lehenak**, batez ere Danimarka eta Finlandia, gizarte ongizate handiko sistemak baitituzte eta Euskadirako erakargarriak dira; esperientzia bi horietatik ikasi behar egin behar da eta ezagutza trukatu. Alemania, Erresuma Batua eta Frantzia ere lehentasunezko herrialdeak dira euskal esportazioen helmugako merkatu nagusiak direlako.
- Europako Akitania, Eskozia, Bavaria eta Flandria **eskualdeak** Euskadiren eskualde homologotzat jotzen dira, horiekin zuzeneko loturak ezarri eta esperientziak eta ezagutza trukatzeko.
- **Ameriketako Estatu Batuak nabarmen** interesgarria da, eta lehentasuna eman zaio haiengandik ikasteko eta euskal jatorriko ezagutza, ondasunak eta zerbitzuak hara esportatzeko. Amerika Latinoa eta bereziki Mexiko, Brasil, Kolonbia eta Peru ere lehentasunezko eremu geografikoa dira Euskadirako,

lotura historikoak daudelako eta zabalkuntza ekonomikoa izaten ari den eskualde bat delako.

- **Asiari** dagokionez, Estrategiaren arabera India, Korea eta Singapur herrialdeak dira lehentasunezko interesa sortzen dutenak horietatik ikasteko, eta Afrikan **Hegoafrikako Errepublika** Euskadiren arreta erakartzen duena.


Bigarren lehentasuna duten herrialde eta eskualdeen artean, Europaren barruan **Holanda eta Irlanda** gailentzen dira, Euskadik horietatik ikaskizunak eta jokabide onak bereganatu ditzakeela uste baita. **Errusia eta Turkia**, beste alde batetik, ezagutza eramateko eta ondasun eta zerbitzuak merkaturatzeko herrialdeak dira.

Era berean, arlo honetan azpimarratzekoak dira:

- **Ameriketan, Argentina eta Txile** lehentasun maila honetakoak dira *BCE*ren arabera, irakatsi eta trukatzeko, eta eurekin harremanak egitea proposatzen da Euskadiren *know how* industrialia sustatzeko. Kanada beragandik ikasi beharreko herrialdeztat jotzen da.
- Asian **Indonesia, Malaysia eta Vietnam** Asiako hego-ekialdeko herrialdeek euskal ondasun eta zerbitzuak merkaturatzeko aukera eskaintzen dute. **Japonia** garapen handiko herrialdea da eta jokabide onak ikas daitezke beragandik.
- Ekialde Hurbilean **Israel** beragandik ikasteko herrialdeztat jotzen da, eta **Golkoko herrialdeak**, berriz, euskal gaitasunak eta ezagutzak erakusteko eremu geografikotzat.

1 Estrategiak ezartzen dituen lehentasunezko eta bigarrentasunezko eremu geografikoak azaltzen dira.

1. irudia. Basque Country Estrategiak planteatutako lehentasunezko eta bigarren lehentasunezko eremu geografikoak



2 2014-2016 hiru urtekoan egindako ekintzen azterketa metatua

2.1 Ekintzen azterketa metatua eta nazioartekotze bektoreekin duten lotura

Eusko Jaurlaritzarensailek eta lotutako herri erakundeek emandako datuez 2014-2016 hiru urtekorako burutu diren azterketen ondorioz, **BCEren aplikazioa gogobetegarria izan da egin diren ekintzen kopuruari dagokionez**. 2014an 333 ekintza zenbatu ziren guztira, 2015ean kopuruak 503 ekintza jo zuen eta 2016an guztira 654 egin ziren.

Orokorrean, 2016an ekintza gehiago egin dira bai kopuruz bai nazioarteko bektore komunekin lerrotzeko dagokionez, aurreko urte bien aldean. 2016 hauteskudeek markatu duten urtea izan dela kontuan hartuta, agerian dago egiten diren ekintzen kopuruak gorako joera duela. Gertaera hori arlo batzuetako jarduerak eta konpromisoak gora egitearekin lotuta egon daiteke (kanpo harremanak; segurtasuna; zientzia, teknologia eta berrikuntza; osasuna, eta hezkuntza, batez ere), bai eta, Jaurlaritzaren sailetatik eta lotutako erakunde publikoetatik bultzatutako Euskadi marka nazioartekotzeko, *BCE* giltzarri gisa finkatu izanarekin ere.

Jarraipen txosten honetan **arlotan tematiko bakoitzean egin diren banako ekintzak** jasotzen dira, 2014-2016 hiru urtekoan zehar lortutako informazioaren azterketaren bitartez. Egindako azterketak guztira **hiru urteetan 1.481 ekintza** identifikatzen ditu, ² jasotzen duen bezala.

2. taula. 2014-2016 aldirian arlo tematiko bakoitzean garatutako ekintza kopurua

Arlo tematikoak	Ekintza kop.			
	2014	2015	2016	Guztira
KANPO HARREMANAK	67	86	150	303
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA	20	79	20	119
KULTURA	30	67	30	127
TURISMOA	46	21	41	108
BAKEA ETA BIZIKIDETZA	5	2	3	10
GARAPENERAKO LANKIDETZA	5	29	33	67
BERDINTASUNA	11	20	12	43
GOBERNU IREKIA	-	3	3	6
HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA	5	2	2	9
ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA	-	1	21	22
ENERGIA	-	-	-	-
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	3	3	33	39
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	23	31	26	80
OGASUNA ETA FINANTZAK	5	9	6	20
ETXEBIZITZA	4	20	33	57
HEZKUNTZA	26	18	50	94
HIZKUNTZA POLITIKA	6	23	9	38
SEGURTASUNA	13	28	103	144
OSASUNA	8	22	40	70
INGURUMENA ETA LURRALDE POLITIKA	33	29	32	94
GARRAIOA	14	10	7	31
GUZTIRA	324	503	654	1.481


* Ez da jaso energiaren arlo tematikoko informaziorik.

Estrategia bete den hiru urteetan izan den informazioaren kontu ematearen arabera, kanpo harremanak, segurtasuna, kultura, enpresak nazioartekotzea eta turismoa dira arlo tematiko aktiboenak *BCE*en planteatutakoaren ildotik garatutako ekintzen kopuruan. Eman diren datuek agerian uzten dute Estrategiaren zeharkako izaera, izan ere Energia izan ezik (enpresak nazioartekotzeko buruzko atalean sartu da eremu propio moduan bereziki Energiaren Klusterraren esparruan), arlo guztiek egin dituzte *BCE*ren esparruko ekintzak. Era berean, hasiera batean *BCE*en zehaztutakoari arlo bi (ogasuna eta finantzak 2014an sartu zen eta

¹ Jardueretako batzuk, inplikaturako sail edo erakundeek eurek taldekatu dituztela kontuan hartu behar da, eta taldekatze hori errespetatu egin da, batzuetan laguntza programa berekoak direlako.

Gobernu Irekia 2015ean) gehitzea *Eusko Jaurlaritzaren* inplikazio handiaren eta *BCE* finkatu izanaren erakusgarri da.

2. irudia. 2014-2016 aldian arlo tematiko bakoitzean garatutako ekintzak guztira (ekintza kop.; %)



Hurrengo taulan **ekintzen ekarpen kopuru osoa erakusten da nazioartekotzeko lau bektore komunetako bakoitzaren ildotik**; guztira, **1.734²**. 2014-2016 aldirako ekintza guztien kopurua 1.481 bada ere eta gehienak nazioartekotzeko bektore bakar batekin lerrokatzen bada ere (pisu handi enekoarekin), badira aldi berean bektore bati baino gehiagori laguntzen dioten ekintzak.


3. taula. 2014-2016 aldiko ekintzek nazioarteko bektoreei egindako ekarpen kopuruaren eboluzioa

Arlo tematikoak	Bektoreak				Guztira
	V1	V2	V3	V4	
KANPO HARREMANAK	99	167	54	11	331
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA	46	68	3	20	137
KULTURA	91	49	7	5	152
TURISMOA	108	67	-	4	179
BAKEA ETA BIZIKIDETZA	2	8	3	2	15
GARAPENERAKO LANKIDETZA	59	5	2	1	67
BERDINTASUNA	31	6	9	8	54
GOBERNU IREKIA	6	-	-	-	6
HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA	4	-	6	4	14
ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA	3	14	2	3	22
ENERGIA	-	-	-	-	-
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2	25	12	-	39
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	17	19	32	15	83
OGASUNA ETA FINANTZAK	3	1	1	14	19
ETXEBIZITZA	2	24	2	29	57
HEZKUNTZA	63	34	9	31	137
HIZKUNTZA POLITIKA	41	14	2	-	57
SEGURTASUNA	49	45	24	26	144
OSASUNA	28	14	2	32	76
INGURUMENA ETA LURRALDE POLITIKA	54	12	23	18	107
GARRAIOA	9	21	3	5	38
GUZTIRA	717	593	196	228	1.734

1. bektorea, *Euskadi kanpoan proiektatzea*, eta **2. bektorea**, *interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea*, **2014-2016** hiru urtekoan jarduera kopururik handiena izan dutenak dira. Gertaera hori koherentetzat jotzen da BCEren helburu nagusietako batekin, hau da: **Euskadi nazioartekotzen laguntzea eta bere kanpo proiektzioa areagotzea**.

² Ekintza batzuek bektore bati baino gehiagori egin diote ekarpena.

3. irudia. Nazioartekotze bektoreei ekintzek egindako ekarpen kopuruaren banaketa 2014-2016 aldian (ekarpen kop., %)



Turismo arloa da ekarpenik handiena egin diona nazioartekotzeko lehen bektoreari. Bere atzetik kanpo harremanen, kulturaren eta hezkuntzaren arloak dira haren helburuak betetzera ekintza gehien orientatu dituztenak. **Kanpo harremanen arloa da bigarren bektorea betetzen gehien lagundu duena**, eta bere atzetik enpresak nazioartekotzea, turismoa eta kultura. **Hirugarren bektorean, arlo aktiboena kanpo harremanena izan da**, ondoren enplegua eta gizarte politikak, segurtasuna eta ingurumena eta lurralde politika. **Osasun arloa izan da laugarren bektorean gehien lagundu duena.** Bere atzetik, hezkuntza, etxebizitza eta segurtasuna izan dira bektore honen esparruan ekintza gehien egin dituzten arloak.

Ondoren, ekintzen azterketa zehatz bat aurkezten da eta nazioartekotzeko lau bektore komunei egin dieten ekarpena³.

2.1.1 1. bektoreari –Euskadi kanpoan proiektatzea– lotutako ekintzen azterketa

Hiru urteko aldi honetan, **1. bektorea –Euskadi kanpoan proiektatzea– nagusi izan da** nazioartekotzeko bektore komunetara orientatutako ekintzen kopuruari dagokionez, ekintza guztietatik **717 ekintza**, hau da **% 41,35**.

1. bektorea Basque Country marka finkatzera bideratuta dago, **Euskadiren marka irudia** eta bere **kanpo proiektzioa eta zabalkuntza**. Horrela, bektore honek Euskadiren berezitasunak eta ezaugarriak atzerrian sustatzea bilatzen du, nazio *branding* bat eginez gurea nabarmentzen den arloetan. Ildo horretan, eragin ahalmen handiagoa garatu nahi da, bai politikoa bai ekonomikoa, maila globalean, eta Euskadirantz talentu eta inbertsio erakarpen handiagoa sortu.

Bektore honek zehaztutako lehen laguntza tresna Basque Country marka da, euskal eragile guztientzat euren nazioarteko proiektzioan eta zabalkuntzan aurkezpen gutuntzat hartzen dena.

Euskadiren posizio hartzea erronka bat da, erakundeek eta gizarte-eragileek jokaleku globalean aitortutako leku bat aurkitu eta lekua hartzeko duten gaitasunean datzana, eta **2014-2016**


³ I. eranskinean bektoreetako bakoitzera orientatutako ekintzak azaltzen dira arlo tematikokoa, jarraipena egin zaien urtealdietan banatuta.

aldian lehen bektoreak izandako ekintza guztietan ikusitakoaren arabera, nazioarteko eztabaidagune eta sareetan parte hartzera eta horietan zabaltzera bideratu dira.

Horrela, bada, 2014-2016 hiru urtekoan zehar Euskadik **nazioarteko sare** askotan hartu du parte aktiboki, besteak beste, *ORU-FOGAR sarean* edo *Eskualde Batuen Antolakundean*, *garapen iraunkorreko ESDN sarean*, *Europar Batasuneko Kultura Institutuen EUNIC sarean* eta *Network to Promote Linguistic Diversity (NPLD) sarean*, gainera, 2015az gero presidentetza Euskadik daukan sarean, hain zuzen.

Nazioarteko eztabaidaguneen kasuan, hiru urteetan zehar Euskadik hainbat eztabaidagunetan hartu du parte, hala nola: *ENBES establezimenduei estatistikak hobetzeko nazioarteko eztabaidagunean*, *Hirien iberoamerikar eztabaidagunean* edo 2015ean izan zen *Nazio Batuen Zerbitzu Publikoaren Mundu Eztabaidagunean*.

4. irudia. Arlo tematikoek nazioartekotzeko 1. bektore komunari –Euskadi kanpoan proiektatzea– 2014-2016



aldian egin dioten ekarpena (jarduera kop., %)

4 ikusten denez, 1. bektorea –Euskadi kanpoan proiektatzea– betetzen gehien lagundu duen jarduera arloa 2014-2016 hiru urtekoan **Turismoa** izan da, **guztiaren %15,06**, hau da, bektore honetara orientatutako 108 ekintza izan dira. **Kanpo harremanak, kultura eta hezkuntza** arloak dira lehen bektorearekin lerrokatuta ekintza gehien egin duten bigarren arloak.

Euskadi helmuga turistikoa erakargarri gisa sustatzea izan da 2014-2016 aldian **Turismo** arloa oinarritu den zutabea. Basquetour Euskal Turismo Agentziak hainbat **nazioarteko azokatan** hartu du parte, hala nola, besteak beste, Berlinen egin zen *ITB azokan* edo Holandan egin zen *Vakantiebeurs azokan*. **Turismo iraunkorreko europar sareetan** ere hartu du parte, *Ecotrans* eta *Necstour* 2015ean, eta Espainiako Turismo Institutuak (TurEspana) Indian, Ameriketako Estatu Batuetan eta Polonian 2016an antolatutako zuzeneko jardunaldietara joan da.

Kanpo harremanen arloak Euskadirako estrategikoak eta lehentasunezkoak diren eskualdeekiko harremanak izatea eta **mugaz gaindiko lankidetzaren indartzea** bultzatu ditu *Akitania-Euskadi Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearekin (LLET)* zerikusia duten zenbait ekintzaren bidez, eta aldi berean 2. bektoreari –*interes sektorialak sustatu eta bultzatzea*– ere erantzuten diote; azpimarratzekoa 2015ean Euskadirena izan zela presidentetza. Gainera, **Basque Country webgunea** sortu da (www.basquecountry.eus) eta

Basque Country marka aurkeztu da Txileko zenbait eskualdetako Prestakuntza Teknikoko Institutuetan eta Lanbide Institutuetan.

Kultura eta hizkuntza aniztasuna bultzatzera bideratutako nazioarteko eztabaidagune eta sareetan parte hartzea, eta euskara nazioartekotzera bideratutako ekintzak egitea, jarduera garrantzitsuak izan dirakultura **arloan**. Ildo horretan, azpimarratzekoa da *Donostiaren Europako Kultura Hiriburutasuna (DSS2016)* 2016an edo *Museoen Europako Foroaren antolaketa eta EMYA 2016 sarien banaketa Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan (TO.PIC) Tolosan*, bai eta Europako Batzordeak eman eta 2015ean Añanako Gatz Haranak jasotako *Europa Nostra Saria* ere.

Une hauetan eraikitzen ari den unibertsitatearen diseinuan eta tresnerian aholku emateko eta irakasleak prestatzeko *Sorotiko unibertsitatearekin (Uganda) izenpetutako akordioa*, edo LHko ikastetxeetako irakasleak trukatzeko eta ikerketa aplikatuko proiektuetan elkarlanean aritzeko *Minnesota State University and Colleges-ekiko akordioa*, jarduerarik azpimarragarrienak dira **hezkuntzaren arloan**, eta horien bidez proiektatu du **Euskadiko lanbide heziketa erreferentzia eredu gisa**. *Akitania-Euskadi mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuak* ere bultzatu dira eta www.science.eus webgunea sortu da, herrialdeko zientzia azpiegitura guztietan informazioa atzitzea errazteko.

Gasteizko Europa biltzar jauregian 2016an egin zen *Euskal Lankidetzaren Publikoaren Eztabaidagunea* edo *Garapenerako Politiken Koherentziari buruzko Nazioarteko jardunaldia*, urte berean Deustuko Unibertsitatean egin, **garapenerako lankidetzaren arloak** garatutako ekintza azpimarragarrietako bi dira, munduan desberdintasuna baztertzeko laguntzeko duen helburuarekin lerrotuta.

Ingurumenaren eta lurralde politikaren eremuak hiru urteetan zehar lehen bektoreranzko joera argia erakutsi du, **herrialde markaren zabalkundera** orientaturiko ekintzekin, hala nola Frantzia egin zen *klima aldaketaren euskal estrategia aurkeztea* eta *Hiri eta Herri Iraunkorren Europako 8. Konferentzia* edo *Biosferaren Erreserben 4. Mundu Biltzarrean (4WCBR) – Euromab–* parte hartzea.

Berdintasun arloa ere nabarmentzekoa da, izan ere Basque Country marka berdintasunaren zutabeetan zabaltzeko duen misioa **nazioarteko erakundeekin elkarlanean eta zerikusia duten ekitaldietara joanez** garatu baita, hala nola *Kolonbiako Herri Indigenen Komunikazio Batzorde Nazionalera*. Ildo horretan, Nazio Batuen Garapenerako Programarekin eta hainbat herrialdeko beste antolakunde batzuekin *Elkarlan Memorandum* bat lantzen ari da, garapen ekonomiko lokalera begira genero ikuspegitik ekintza bateratuak bultzatzeko.

Atzerriko katedren bitartez **euskara sustatzea** eta **Euskararen Nazioarteko Eguna** ospatzea **hizkuntza politikaren arloak** lehen bektorearekin lerrotuta egin duen jarduera nagusietako bi dira. *Network to Promote Language Diversity (NPLD)* sarearen mahai-inguruetan parte hartzea Bruselan, Europako Aliantza Librearen (ALE) Batzar Orokorrean parte hartzea eta *Eusko Jaurlaritzaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmenaren esparruan euskara sustatzeko urteko elkarlan akordioa* izan dira ekintza azpimarragarrienak.


Gobernu Irekiaren arloak, 2015ean arlo tematiko berri moduan sartu zenak, bere ekintza guztiak bektorea betetzera bideratu ditu 2014-2016 aldirian. Esanguratsuak dira *Nazio Batuen Erakundeak zerbitzu publikorik onenari emandako saria* eta *Herritarren Berrikuntzarako 3. Iberoamerikar Laborategira (LABIC) joan izana*.

2.1.2 2. sektoreari –Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea– lotutako ekintzen azterketa

2014-2016 aldian bere helburuekin lerrokatutako ekintzarik gehien izan duen bigarren sektorea **2. sektorea –Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea–** izan da (593 ekarpen).

Garrantzia ematen zaio Euskadiraiko estrategikoak eta lehenasunezkoak diren beste herrialde eta eskualde batzuekin hitzarmenak egiteari, bai eta ezagutza trukatzeko eta ondasunak eta zerbitzuak esportatzeko aukerak sortuko dituzten nazioarteko eta alde anitzeko erakundeetan Euskadiren egitekoa indartzeari ere. *Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi komisarioaren bulegoarekin (OHCHR) elkarlanean aritzea, Turismo Iraunkorraren Mundu Gailurra Gasteizen egitea, eta Ipar Irlandarekin eta Minnesota estatuarekin LH arloan ezagutza trukatzeko hitzarmenak*, horra hor bigarren sektore honi lagundu dioten jardura aipagarrienetako batzuk.

5. irudia. Arlo tematikoek nazioartekotzeko 2. sektore komunari –interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea– egin dioten ekarpena 2014-2016 aldian (jardura kop., %)



Bigarren sektoreak planteatutako helburuak lortzen gehien lagundu duten arloak, ordenatuta, **kanpo harremanak, enpresak nazioartekotzea, turismoa eta kultura izan dira, denak ere nazioartekotze zama esanguratsua dutenak, beren garapen eremuari esker.**

Kanpo harremanen arloa gainerako sailen bidegile eta bultzatza-eragile jardun da haien jarduerak nazioartekotzeko bigarren sektore komunarekin lerrokatzen.

Aipagarriak dira *Garapen Iraunkorreko Helburuei (GIH)* buruz Unesco-Etxearekin batean arlo honek antolatu zituen jardunaldiak eta *Kolonbiako Gobernuaren Ekoizpena Eraldatzeko Programarekin (PTP)* izenpetutako hitzarmena eta partaide izandako mintegia, ikasle trukeari buruzko *Jiangsu-Euskadi Elkarlan Hitzarmenaz* gain. **Erakunde harremanak estutzeko, beste eskualde eta herrialde batzuetako gorputz diplomatikoekin hasitako harremanak** ere areagotu dira hiru urteetan zehar.

Nazioartekotzeko bigarren sektore komunarekin lerrokatutako jarduerarik gehien egin duen bigarren arloa **enpresak nazioartekotzearen arloa** izateko arrazoi nagusia Euskal industria laguntzea eta sustatu eta bultzatzea da.

2014-2016 aldiaren arlo honetako bere jarduerarik gehiena **nazioartekotu nahi duten enpresei laguntzeko** izan da, Nazioartekotze Zuzendaritzak bultzatutako hainbat programak ematen dituzten laguntzen bitartez (*Global Lehian, Gauzatu Implantaciones Productivas Exteriores, Elkartzen* eta abar). Gainera, 2015ean **hiru laguntza programa berri** jarri ziren martxan: *PROFEX*, ETEak nazioartekotzera bideratua, *InterLehian*, lehiaketetan parte hartzen laguntzeko mekanismo gisa, eta *LANdhome*, ETEei laguntza ematen diena enpresen talentua aberria itzultzeko eta Euskadira itzulitako euskal profesionalen hemen beste lan bat eman nahi diena.

Euskal enpresak nazioartekotzeari laguntzeko lanean, SPRIk estutu egin ditu **instituzio, erakunde eta orotariko elkarteekiko harremanak** eta **Singapurren eta Alemanian bulego berri bi** ireki ditu. Bulego bi horiek atzerrian SPRIren kanpo sareak guztira dituen hamar ordezkari bulego gehitzen zaizkie, horien guztien bitartez enpresei neurriko zerbitzuak emateko euren nazioartekotze prozesuan.

Turismo arloan txertaturik, *Basquetour Euskal Turismo Agentziak* turismoaren inguruko hainbat azokatan hartu du parte (*Salon des Vacances, MAP azoka, WTM Sao Paulo* eta abar), Euskadiren sustapen turistikoa egiteko. 2016an Turismo Zuzendaritzak *Tosta Cultural Cargo proiektua* bultzatu zuen Donostia 2016 programaren esparruan, Euskadiren kultura eta hizkuntza aniztasun eta aberastasunaren zabalkundea egiteko. Turismo iraunkorraren sustapena ere aipagarria da, *CEAVek eta Basquetourrek bidaia agentzien Elkarburuen Munduko topagunea* antolatu zuten Bilbon eta Donostian, eta *Turismo Iraunkorraren Munduko gailurra* izan zen Gasteizen 2015ean.

Turismoa zutabe garrantzitsua da Euskadirako, azken hamarkadan zeharo gora egin duena, bai turistaren harreran bai **landa turismoan** –honetan Euskadi puntan dago– edo **turismo iraunkorrean** –honi Basquetourrek laguntza eman dio azokak eta erakusketak antolatuz hiru urteetan zehar–.

Etxepare Euskal Institutuak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzaren bitartez, **euskal kultura eta euskara** sustatu dute, eta horregatik dago **kultura arloa** 2. sektorean. Euskal musika industria, agertokiko ertiak eta zinemaldietako partaidetza bultzatzea, eta **Red Glocal Cinema hegemonikoak ez diren hizkuntzetako zinemagintza nazioarteratzeko zinemaldian** parte hartzea, horiek izan dira arlo honetako egin dituen ekintza nagusiak.

Etxepare Institutuak euskal sorkuntza artistikoa nazioartean sustatzeko laguntza programa batzuk bultzatu ditu, euskaratik beste hizkuntzetara bihurtzeko itzultzaileak prestatzeko edo euskal olerkigintzan lankidetzaren sustatzeko. Halaber, Etxepare Institutua *Europar Batasuneko Kultura institutu nazionalen EUNIC sareko bazkide* izendatu zuten 2015ean eta *Euskadi Berlingaleren 88. edizioan egon zen Basque Audiovisual markaren* bitartez, gertakari biak ere azpimarratzekoak.

Bigarren sektoreari begira **etxebizitzaren arloak** egin dituen ekintzak **eraikuntza iraunkorra sustatzera** bideratu dira, hizlari moduan parte harturik *Eraikuntzako kalitate kontrolerako laborategian 3rd Materials for Green Building symposium* sinposioan edo *12th Rehva World Congress* biltzarrean, besteak beste. Aipagarria da **acesit bi eman zaizkiola Visesa Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoari**, Gasteizen 30 etxebizitza zaharberritzeagatik **etxebizitza arduratsuen Europako Sarietan finalista** izan baitzen.

Abiadura Handiko Jardunaldietan hizlari moduan parte hartzeak, mugaz gaindiko kirol nautika sustatzeko Akitaniarekin elkarlanean aritzeak eta *Abiadura Handiko Operadoreentzako eskuliburua prestatzeak*, Kataluniako Nazioarteko Unibertsitatearekin (UIC) elkarlanean, 2. bektoreari lagundu diote **garraioaren arlotik burdinbidearen arloan euskal know how guztia sustatzen**. Nazioarteko burdinbide proiektuetan euskal enpresei lagundu ere egin zaie, Euskadiren interesak atzerrian sustatzeko bide bat da eta. Proiektu horien artean azpimarratzekoa da *Ekuadorko Cuatro Ríos de Cuencan egindako tranbiaren obra zibilaren* proiektua.


2.1.3 3. bektoreari –Europako esparruarekin lerrokatzea– lotutako ekintzen azterketa

3. bektoreak –Europako esparruarekin lerrokatzea– planteatutako erronka nagusietako bat euskal eragileen presentzia Europar Batasunean, beronen programa eta proiektuetan areagotzea da. Gainera, Europako erabakiguneetan *Eusko Jaurlaritzaren sailen eta berari lotutako herri erakundeen partaidetza* areagotzea planteatzen du helburu gisa, euskal politikak Europako araudi berriekin lerrokatzeko eta, gainera, politika horiek sortu eta lantzeko prozesuan esku hartzeko, Euskadiren interesak aldezte aldera.

Mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzak berebiziko tresna da Euskadirako, kideko interesak dituzten beste eskualde batzuekin partekatutako gune bat sortuz erabakiak hartzeko lekuetan eragin handiagoa lortzeko, eta **Europar erabakimen handiagoa** izateko.

3. bektoreak –Europako esparruarekin lerrokatzea– 196 ekarpen jaso ditu 2014-2016 hiru urtekoan, hau da, bektoreei egin zaizkien 1.734 ekarpen guztien % 11,3. Hori arrazoitzeko aintzat har liteke lehentasuna eman zaiela *1. bektoreari –Euskadi kanpoan proiektatzea–* eta *2. bektoreari –interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea–* hirugarren bektorearen aldean, Europako esparruan egin diren arren lehen edo bigarren sektorearekin ere lerrokatu diren ekintzetan. Hortik erraz ondoriozta daiteke **Europako esparruan egin izan diren hainbat ekintzak beste bektoreei lagundu dietenez ez direla zenbatu nazioartekotzeko hirugarren bektore komunaren barruan.**

6. irudia. Arlo tematikoek nazioartekotzeko 3. bektore komunari –Europako esparruarekin lerrokatzea– 2014-2016 aldian egin dioten ekarpena (jarduera kop., %)



2014-2016 hiru urtekoan, **3. bektorea –Europako esparruarekin lerrokatzea–** betetzera orientaturiko ekintzarik gehien egin dituen arloa **kanpo harremanena** izan da, **bektore honen % 27,55, EBko lan instituzionala koordinatzearen arduraduna baita**. Kanpo Harremanen arloak *Kanpo Harremanetarako Planean* Estrategiaren hirugarren bektoreari zuzenean lotutako helburu estrategiko bat duela argitu beharra dago, **3. helburu estrategikoa. Europaren eraikuntzaren parte-hartzaile kide eta erantzule kide izatea**. Helburu estrategiko horren ildotik, **Idazkaritzak etengabeko mugaz gaindiko jarduera mantendu du Akitania-Euskadi euroeskualdean**.

Arlo honetako lana Euskadirako estrategikotzat jotzen diren eskualde eta herrialdeekiko harremanak indartzera eta mugaz gaindiko lankidetzara bideratu da.

Bavaria, Eskozia eta Flandriarekin sinatutako *MoU* agiriak edo Nafarroa sartu berri den Akitania-Euskadi *Lurralde Lankidetzarako Europako Taldeko (AECT)* Euskadiren presidentetza *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak* egin dituen ekintza esanguratsuetako batzuk dira, eta nazioartekotzeko hirugarren bektore komun horretara orientaturik daude.

Enpleguaren eta gizarte politiken arloa enpleguarekin zerikusia duten Europako sare eta proiektuetan parte hartzera orientatu da, esaterako *Lan Merkatuaren Europako Behategi Sarean* eta Europako *MILLENIUM* eta *TLN* proiektuetako ideia laborategietan 2016an. Belgikan egin zen Horizonte 2020-ko 6. Erronkako 2016-2017 Lan Programarako ordezkari autonomiko funtzioa ere aipagarria da.

BCE bete den hiru urteetan, **Segurtasun arloak polizia elkarlanaren arloan beste herrialde batzuekin harremanak estutu** ditu *Ertzaintzaren Zuzendaritzaren* bitartez. *Bavariako Barne Arazoetako ministroarekin bilera bat egin da Elkarlanerako Deklarazioa adosteko* eta zenbait herrialderekiko harremanak indartu dira (Holanda, Belgika, Italia eta abar). Gainera, *Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Europako Coordinated Atlantic Coastal Operational Oceanographic Observatory - My Coast* proiektuan hartu du parte.

Ingurumen arloak Europarekiko interakzioa bultzatu du zenbait foro eta ekitalditan parte hartuz, hala nola Belgikan 2015ean egin ziren *Common Forum on Contaminated Land in Europe* edo *etorkizuneko Europaren Ingurumen Aztarnarako jarraipen batzordeetan*.

Administrazio publikoaren eta justiziaren arloak Eskualdeen Batzordean hartu du parte **eskualdeen parte-hartzea aldezteko** eta *eIDAS High-Level Event “A new leap in the eIDAS journey: new trust services for a Digital Single Market”* jardunaldira joan da, *Europako Parlamentuan*.

Besteak beste, *ERIAFF Nekazaritza, Elikadura eta Basogintzako Berrikuntzarako Europako Eskualde Plataforman, Europako Ekintza Lokaleko Taldeen ELARD Sarean* eta Irlandan egin zen *‘Cork 2.0’ Europako Batzordearen Konferentzian* parte hartuz, **nekazaritza eta arrantza arloak Euskadiren presentzia areagotu du European, euskal erakundeek interes bereziko guneetan parte hartzea bultzatzeko**.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza arloak euskal I+G+b nazioartekotzea atzerriko baliabideak eta finantzaketa jaso ahal izateko aukeratzat jotzen du, bai eta ezagutza berria eta teknologiak jaso eta garatzeko ere. 2014-2016 aldian, arlo honek **Euskadi aurreratuta dagoen sektoreetan zentratu du bere nazioarteko jarduera**, hala nola automobilgintzan, ingeniarietan eta osasunean (*M-ERANET, MANUNET III* eta beste proiektuak).

Europako esparruaren ildoan, **bakearen eta bizikidetzaren arloak** IV. Peace Program programaren esparruan Europar Batasunarekin elkarlanean aritzeko eremuak eta proiektuak

artikulatu ditu, eta 2014-2020ko IV. Peace Program programan proiektu bat aurkeztu du Ipar Irlandarekin batera.


2.1.4 4. sektoreari –ezagutza atzitzea– lotutako ekintzen azterketa

Euskadi eta bere Basque Country marka nazioartean kokatzeak mesede egin dio Eusko Jaurlaritzari abangoardian dauden beste herrialde batzuekin alderatuta, norberaren indarguneak eta ahultasunak detektatzerakoan. Ezagutza atzitzea, berrikuntza eta itungintza **beste herrialde edo eskualde osagarri batzuekin** beharrezkoak dira, Euskadirako erreferentzia diren herrialdeak etengabe behatzen egoteaz gain.

Nazioartekotzeko laugarren sektore komunak funtsezkotzat jotzen du Euskadi eskualde erakargarria bilakatzea gazte profesional eta prestatuentzat. **Herrialde edo eskualde bikainekin alde biko harremanak** egitea eta **elkarlanerako hitzarmenak** gauzatzea ere lehentasunez jotzat jotzen dira.

2014-2016 hiru urtekorako aztertutako datuen multzoan, **4. sektoreak –ezagutza atzitzea– nazioartekotzeko lau sektore komunek jasotako eragin guztien % 13,15** osatzen du. Laugarren sektorean gehienbat **osasunaren, etxebizitzaren, segurtasunaren eta enpresak nazioartekotzearen** arlo tematikoek eragin dute.

7. irudia. Arlo tematikoek nazioartekotzeko 4. sektore komunari –ezagutza atzitzea– 2014-2016 aldian egin dioten ekarpena (jarduera kop., %)



Osasun arloak medikuntza aurreratua bezalako gaitan ezagutza trukatu eta atzitzeari eman dio lehentasuna. Ildo horretan, parte hartu du *Akitania Berria/Euskadi Bio-osasun Industrien 2. topagunean*, hainbat zientzialari saiotan, *big datari buruzko webinar* batean eta *Challenge Oriented Session* batean. Halaber, Stockholmera, Danimarkara eta Suediara egin dira bisitaldiak *zahartze aktiboaz eta osasun berrikuntzaz esperientziak trukatzeko*, eta osasunarekin zerikusia izan duten Europako proiektu batzuetan hartu da parte (*MAGIC TITAN*, *REF BIO II* eta abar), **Euskadik Horizon 2020 bezalako programetan partaidetza areagotu** dezan laguntzeko.

Hiru urteetan zehar, **hezkuntza arloak** parte hatu du atzerrian jardunaldi eta biltzarretan, **nazioarteko jokabide onak ikasteko**, besteak beste, aipagarriak dira *Lanbide Heziketako*

Nazioarteko Biltzarra 2014an edo "Evaluación y diversidad: justicia y equidad en la evaluación educativa" mintegia Mexiko Hirian (Mexiko) 2016an.

*EHUk eta Jiangsuko Atzerri Gaietarako Bulegoak Aditze Memoranduma izenpetzea eta **Lanbide Heziketari bultzada ematea Europako Ikaskuntza Aliantz**an parte hartuz edo **Euroeskualdeko campusa martxan jartzea** ekintza garrantzitsuak dira 4.bektorearen –arloan honetako ezagutza atzitzea– ildoan. 2015-2017 Zuzendari Funtzioaren eta **Irakasle Lanaren Ebaluazio**arako Europako proiektua Euskadik koordinatzea eta aitzindari izatea ere garrantzitsua da.*

Eraikuntzako finantzaketan eta efizientzia energetikoan erreferentzia ereduetatik ikastea helburu nagusi bat da **etxebizitza arlorako, ANNEX 58: Reliable Building Energy Performance Characterisation Based on Full Scale Dynamic Measurements** delakoan Eraikuntzako Kalitate Kontrolerako Laborategian, **Europako Energy Efficient Buildings** elkartearen (E2B) eta **Europako Eraikuntza Plataforma Teknologikoan (ECTP)** parte hartu izanaren ildotik. **Efizientzia energetikoko proiektuetan** ere modu aktiboan hartu du parte (OSIRYS, FOSTERREG, BULLSMART, ZEnN), eta *Etxebizitza Behategien III. Foroa* gidatu du.

Europako eztabaidaguneetan, sareetan edo foro profesionaletan parte hartzea segurtasun arloan egin den ekintza nagusietakoa da, atzerriko ezagutza atzitzera bideratuta. *Europako poliziaren Nazioarteko 19. Biltzarrean eta Terrorismo Globalari buruzko 4. Elcano Eztabaidagunean (FETG)* parte hartzea izan da ildo honetan aipagarrienetakoa.

Enpresak nazioartekotzearen arloan nazioarteko eta Europako sareetan parte hartzea bultzatu da eta industria sektoreko enpresetarako programak eta laguntzak abiarazi dira ezagutza atzitzeko tresna gisa. Ildo honetan, aipagarria da *LANdhome* programa, ETEei laguntzeko dena, enpresen talentua aberrira itzularazte aldera.

Ingurumenaren eta lurralde politikaren arloak parte hartu du Europako zenbait proiektutan, eraikuntza efiziente eta iraunkorraz eta eraikingintzan erabilitako materialak berreskuratzeaz, esaterako *HISER, New-Innonet* edo *D4A* proiektuetan.


Europako erakundeetara egin diren alde biko bisitak eta **nazioarteko eragileekiko harremanak**, adibidez, Madrilen egin zen *Turismoaren Mundu Antolakundearekiko bilera*, *AEEren RIAC sareko Lehiakortasun-adituen Taldearen bilera* eta euskal etxeetako gazteak Euskadin egonaldia egiteko *Gaztemundu 2016 programaren deialdia*, horra hor **kanpo harremanen arloak** ezagutza atzitzeko egin dituen ekintzetako batzuk.

Ogasunaren eta finantzen arloa ez zegoen Estrategian sartuta hasieran, baina 2014an erantsi zen, eta bere lana, batez ere, *4. bektorean –ezagutza atzitzea–* planteatutakoa betetzera bideratu du. Nabarmentzekoak dira *Europako POCTEFA* proiektuan parte hartu izana, **Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta sozialerako**, mugaz gaindiko lankidetzak proiektuak kofinantzatuz, eta *nazioarteko rating agentziei* egindako aurkezpenak, agentzia horiek Euskadiri herrialde irudi globalean eta nazioarteko finantza merkatuetan erabakigarria den kalifikazio bat eman diezaioten.

Administrazio publikoaren eta justiziaren arloan, aipagarria da ezagutza eta jokabide onak ikasteko kudeaketa publiko berritzailearen arloan egin diren **nazioarteko mintegietan** eta jardunaldietan parte hartu izana.

Orokorrean, *Eusko Jaurlaritzako sailek* eta haien lotutako erakunde publikoek egindako ekintzen multzoak 2014-2016 aldian nazioartekotzeko lau bektore komunekin izan duen lerroak aztertuz gero, argi ikusten da **1. bektorerantz –Euskadi kanpoan proiektatzea–** lerratuta egon dela, eta ondoren **2. bektorerantz –interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea–**, eta horrek argi erakusten du gure indarguneak ezagutarazteko eta Basque Country marka sustatzeko egin den ahalegina.

8. irudia. Nazioartekotzeko bektore komun bakoitzari laguntzen dioten ekintzak guztira, 2014-2016 aldian



2.2 Arlo tematikoen azterketa gai bakoitzaren nazioartekotze helburuei dagokienez⁴

Estrategiaren helburu nagusia **Euskadiren nazioarteko jarduera areagotzea eta sakontzea** da, eta horrek ekintzak eskatzen ditu, hain zuzen, *Eusko Jaurlaritzaren sailek* eta horiei lotutako herri erakundeek nazioartekotze arloko jarduera gehiago egitera bideratutako ekintzak.

Helburu horretarako, 2014-2016 aldirako lortu beharreko jomuga multzo bat planteatu zen arlo bakoitzerako, kontuan hartuz, gainera, nazioartekotzeak joko erabakigarria jokatu behar zuela denboraldi guztian.

Ondoren azterketa bat jasotzen da **arloan bakoitzean nazioartekotze helburu eta erronken betetze mailaz**.

2.2.1 **Kanpo harremanen eremua**

Arlo tematikoetatik, **kanpo harremanen arloa** da Euskadiren nazioarteko proiektzio handiagoa lortzeko sail arteko eta erakunde arteko koordinazio eta lankidetzaren arduraduna.

Euskadik atzerrian dituen interes multisektorialak aldeztu eta nazioartean posizioa hartzen laguntzea *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak* planteatutako jomuga nagusietako bat izanenez, Estrategia aplikatu den denboran **estrategikotzat jo diren herrialde eta eskualdeekin harremanak egiteari bultzada** eman dio, eta beste arlo tematiko batzuetan inplikaturakoei erraztu egin die **estrategikotzat jo diren Europako sare tematiko eta proiektuetan parte hartzea**.

Halaber, *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak* **harremanak estutu ditu atzerriko euskal komunitatearekin**, atzerriko euskal etxeei beka eta diru laguntzak emanez eta euskal etxeetako gazteentzat Euskadiko egonaldien programa deialdiak eginez.

Azpimarratzekoa da Europako erakundeekin harremanak sendotu egin direla kontinenteko **hainbat herrialdeetako ordezkariekin kontaktuak** eginez. Gainera, Europaz haraindi, 2014-2016 aldiran Ipar Amerikako, Amerika Latinoko, Asiako eta Afrikako herrialdeetako pertsona ospetsuekin kontaktuak egin ziren.

2.2.2 **Enpresak nazioartekotzearen eremua**

Enpresak nazioartekotzearen eremua, bai eta *kanpo harremanen, turismoaren eta kulturaren arloak* ere, Euskadiren proiektzioaren arlo bultzagile bat da panorama globalean, euskal ekoizpen ehunak atzerriarekin duen elkarrekintza kontuan hartuta.

Illo horretan, enpresak nazioartekotzearen arloa nazioartekotzeko lehen bektore komun biak betetzera orientatzen da (*V1. Euskadi atzerrian proiektatzea, V2. Interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea*); horiei, *BCE* aplikatu den denbora guztian, **enpresak nazioartekotzeko zenbait programaren bidez** (*Global Lehian, Interlehian, Elkartzen* eta abar), **unibertsitateko gazteek atzerrian praktika ordainduak egiteko programen bidez** (*Global Training*) eta **atzerrian inplantazio produktiboak sustatzeko programen bidez** ekin zaie.

*SPRI*ren bitartez, **enpresei beren nazioartekotze esperientzian lagundu** zaie, eta hizlari moduan aritu eta Euskadiko kluster politikako esperientzia zabaldu den biltzar, mintegi eta

⁴ Ez da aztertu Energia arloa, ez delako jaso arlo tematiko honi buruzko informaziorik aldi guztian

konferentzietan hartu da parte, horrela **Enpresak nazioartekotzeko arlorako BCEn planteatutako helburuak osatuz.**

2.2.3 Kulturaren eremua

Euskal kultura Euskadiren bereizgarri bat da eta funtsezkoa da nazioartekotzen aurkezpen gutun moduan jokatzera Eusko Jaurlaritzaren beste arlo batzuetan.

BCE aplikatu den hiru urteetan, **Basque Country markaren proiektzioa, kultura arloaren bidez, nazioarteko entzute handiko kultura ekitaldiak egitea** izan du oinarri, esate baterako *Donostiako Nazioarteko Zinemaldia* edo *Europako Kultura Hiriburutasuna DSS 2016* tartean dela, besteak beste.

Paraleloan, **nazioarteko sare eta eztabaidaguneetan** ere parte hartu da (*EUNIC sarea, Glocal Cinema sarea, Europako Museoen Foroa* eta abar), euskal kultura nazioartekotzeko giltzarritzat jotzen diren erakundeetan Euskadiren presentzia areagotuz.

Aipagarria da kultura arloak egin duen lan eskerga **euskal enpresek nazioarteko azoketan parte har dezaten Etxepare Institutuaren bitartez, atzerrian kultura jarduerak diruz laguntzen** (antzerki-itzuliak, musika-itzuliak, euskal dantza alardeak eta abar) eta euskal hizkuntza eta kultura zabaltzen **hainbat lan zenbait hizkuntzatan argitaratuz.**

Akitania-Euskadi euroeskualdearen esparruan egindako lana bultzatzeari dagokionez, aipagarria da *Aquitaine.eus* webguneari egin zaion sustapen lana, eta euroeskualdeari berari egin zaiona euskal artistak Akitaniara erakartzeko.

2014-2020 "Europa Sortzailea" Plan Estrategikoaren esparruan Euskadiren aitzindaritza azpimarratu behar da sormen industria bultzatzeko Europako proiektu batean, non diseinua, gastronomia edo bideo-jokoaren garapena lehentasunezko arlo estrategikoetako batzuk diren.

Ezagutza atzitzearenikuspegitik, hiru urteetan zehar kulturaren arloan Europako zenbait eztabaidagunetan hartu da parte, kultura sustapenaren beste eredu garrantzitsu batzuen informazioa lortzeko, eta Euskadiren kultura kanpoan proiektatzeko egin da lan.

2.2.4 Turismoaren eremua

Turismoaren arloak batez ere European, Ipar Amerikan eta Amerika Latinoan **azoka turistikoetan parte hartuz** bultzatu du Euskadiren nazioartekotzea. *Turespañaren zuzeneko jardunaldietan* ere parte hartu da hainbat herrialdetan, hots, Polonian edo Ameriketako Estatu Batuetan **eta Estrategiak lehentasunezkoetat** edo **bigarren lehentasunezkoetat jotzen ez zituen herrialde batzuetan ere bai**, esate baterako Zeelanda Berrian eta Australian.

Halaber, *Basquetourrek* eta Turismoaren arloko *zuzendaritzek* **turistak Euskadira erakartzea bultzatu dute, lurraldearen turismo eskaintza dibertsifikatuz, esate baterako enogastronomia turismoa eta landa turismoa.**

Ezagutza atzitzeari dagokionez, *BCEk* markatutako **helburuak bete dira**, Euskadi bazkide izanik, **parte hartu izan delako Turismoaren Mundu Antolakundearen (UNWTO)**, Gasteizen **Turismo Iraunkorraren Munduko gailurra** egin delako 2015ean eta parte hartu delako **turismo iraunkorreko Europako sareetan, hots, Ecotrans eta Necstour-en.**

2.2.5 *Bakearen eta bizikidetzaren eremua*

2013-2016 *Bake eta Bizikidetzaren Plan* jarritako bake eta bizikidetzaren helburuek kontuan izan dute nazioartekotzea, beharrezkoa delako **bake prozesuetan nazioartean izan diren esperientzien ezagutza ikastea**, bai eta **eskuratutako ezagutza eta esperientzia atzerrira proiektatzea** ere, Euskadiren irudia bakearekin engaiatuta dagoen lurralde baten irudiari loturik.

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi komisarioaren bulegoarekin (OHCHR) izandako elkarlana eta bakearen eta memoriaren gaitan elkarlanerako tartekak eta proiektuak antolatzeak, *Eusko Jaurlaritzak* eta *Flandriako Gobernuak* izenpetutako hitzarmenaren esparruan, berebiziko laguntza eman diote, *Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritza Nagusiaren* bitartez, bai Euskadi kanpoan proiektatzeari (V1), interes sektorialak aldeztu eta erronka globalei laguntzeari (V3) bai ezagutza atzitzeari (V4).

Halaber, Europako esparruarekiko lerrotatze estrategikoa (V3) **Europar Batasunarekin elkarlanean egiteko proiektuak** baliatuz egin da, *IV. Peace Program* programaren esparruan.

2.2.6 *Garapenerako lankidetzaren eremua*

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia garapenerako lankidetzaren arloan Euskadiren proiektzioa nazioartean bultzatzeko elementua da. 2014-2016 urteetan zehar, **nazioarteko erakundeekiko elkarlana eta Europako antolakundeekiko harreman estutzea bultzatu du Euskal Agentziak** *Conference of Peripheral Maritime Regions of Europe* konferentziako Kanpo Lankidetzaren Lantaldearen presidentetzan parte hartuz. *Euskal Lankidetzaren Publikoaren Etabaidagunean* eta garapenerako politiken garapen eta koherentzia estrategia positiboari buruzko nazioarteko zenbait jardunalditan ere parte hartu du, adibide batzuk jartzearen.

Bigarren sektorearen ildotik planteatutakoa betetzeari dagokionez, *Eusko Jaurlaritzak* generoaren zeharkakotasunari ekin dio *Bilboko Udalarekin* batera *Garapen Estrategia Positiboaren Jardunaldiak* antolatuz eta *Forum Mulher Elkartearekin* hitzarmen bat sinatuz, Emakumeen Mundu Martxaren Nazioarteko Idazkaritza indartzea helburu duen proiektu bat finantzatzeko.

2.2.7 *Berdintasunaren eremua*

Nazioartean berdintasun politiken abangoardian dagoen "**Basque Country marka**" bat aldeztzea **berdintasun arloan** lortu beharrek helburuetako bat da, eta horretarako Emakundek genero berdintasunari dagokionez **erabakigarriak diren nazioarteko erakundeekin hitzarmenak** egitea bultzatu du, hala nola *Genero Berdintasunerako Europako Institutua (EIGE)*. Era berean, *Nazio Batuekin* egin diren kontaktuak aipagarriak dira, hots, **Nazio Batuen Garapen Programarekin (UNDP) elkarlanean aritzeko memoranduma** eta latinamerikar erakundeekiko elkarlana, besteak beste, *Txileko Gobernuaren Emakumearen Zerbitzu Nazionalarekin*.

Europaren esparruan, *Euro Gender sarean* hartu da parte, *BCE* n zehaztutakoa betetzeko nazioartekotzeko hirugarren sektorearekin elkarlaturik. Ameriketako *Iberoamerikako Idazkaritza Orokorraren* eta *Eusko Jaurlaritzaren* arteko harremanak estutu izana azpimarratzekoa da, elkarlanerako esparru hitzarmen bat sinatu baita.

Azkenik, bai irakastera bai ikastera zuzendutako **etabaidagune, jardunaldi eta saioetan parte hartuz guztiz asebeteko dira berdintasun arloaren interesak**: horren bidean adibide dira El

Salvadorren egin zen "Promoción e intercambio de buenas prácticas para implementar políticas locales a favor de la igualdad de género" eztabaidagunean edo "Lurraldeetako emakumeen genero berdintasunaren eta beregaintasun ekonomikoaren alde" mintegian, Turinen egin zen *Garapen Ekonomiko Lokalari buruzko III. Eztabaidagune Globalaren* giroan, parte hartu izana.

2.2.8 Gobernu Irekiaren eremua

Gobernu Irekiaren arloa ez zen kontuan hartu *BCEn* hasieran, eta 2015ean sartu zen arlo berri gisa. Arlo honek Euskadiren atzerri proiektiorantz bideratu du bere jarduerak *Basque Global Network* sarearen edukiak garatuz.

Herritarren Berrikuntzarako 3. Iberoamerikar Laborategian (LABIC) ere hartu da parte, Euskadiren interes sektorialak bultzatu eta sustatu beharri kobru emanez *etazerbitzu publiko onenaren saria jasoz Nazio Batuen Erakundeagandik* 2015ean.

2.2.9 Herri administrazioaren eta justiziaren eremua

Administrazio publikoaren eta justiziaren eremuan Euskadi Europaren ispiluan zabaldu da kanpora, *partaidetza Eskualdeen Batzordean* garatuz eta *jardunaldietan Europako Parlamentuan*, esate baterako 2016an *eIDAS High-Level Event: "A new leap in the eIDAS journey: new trust services for a Digital Single Market"* ekitaldiaren esparruan egin zena. Arlo honetan 2015ean *Summer School European Forum for Justice (EFRJ)* ere koantolatu da, interesek sektorialak bultzatzeko.

Hala ere, **Euskadi araugintza kalitatea eta maila anitzeko gobernantza bezalako arloetan garatzeari** dagokionez, nolabaiteko **jarduerak falta** nabaritzen da; jomuga horiek *BCEn* proposatuak izan ziren, bai eta gardentasunaren, kudeaketa deszentralizatuko ereduen eta meritokraziaren arloko **ezagutza atzitzera eta jokabide onak ikas dakizkiekeen eskualdeekin harremanak izatera bideratutako ekintzetan** ere.

2.2.10 Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren eremua

Horizon 2020 Europako proiektuak abiaraztea eta horietan parte hartzea izan da **zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloak** burutu dituen jardueren helmuga nagusia Estrategia bete den aldian 2014-2016 urteetan, *BCEn nazioartekotzeko helburutzat jarritakoa betez*.

Arlo hau *Enterprise Europe Network (EEN)* delakoaren konferentzietan esku hartzen ere aritu izan da, esate baterako Bratislavan 2016an egin zen hartan, eta Horizon 2020 programa aplikatzeko batzordeetan parte hartzen, garraio adimentsu, ekologiko eta integratua bezalako gaietan.

RIS3 espezializazio adimentsuko euskal estrategiaren ildoan, zientzia, teknologia eta berrikuntza arloak *workshop on Advanced Manufacturing in RIS3: Design, policy-mix and evaluation* lantegian hartu du parte, eta horrela helburu guztiak bete ditu *BCEtik*.

2.2.11 Nekazaritzaren eta arrantzaren eremua

Nekazaritza eta arrantzaren arloak bere jarduerarik gehiena interes sektorialak sustatu eta bultzatzen eman du, parte hartuz *Pirinioetako Lan Elkartean (PLE)*, *POCTEFAko Kudeaketa Agintaritzak* antolatutako mintegietan eta *SUDOEko Kudeaketa Agintaritzak* antolatutakoetan besteak beste, bai eta zenbait *Interreg* proiektutako batzorde teknikoetan parte hartuz ere.

Azokak arlo honek erabili dituen formula bat izan da Euskadi atzerrian proiektatzeko eta Basque Country marka Europaren esparruan kokatu eta indartzeko. Halaber, 2016an egin zen **Basque Culinary World Prize** ere lagungarria izan da *BCEn* jasotako helburuak lortze aldera, nazioartekotzeko lehen eta hirugarren bektore komunaren ildotik.

Euskadiren interes sektorialak sustatzearen lerroan aukerak eta prospekzio misioak bilatzeari dagokionez, alderantzizko misio bat eta merkataritza misio bat egin da Mexikora 2016an.

Hobetu behar dena zera da: itsasbazterreko ontzien jarraipenerako sistema teknologikoen eta tsunamiak detektatzeko baliza sistema berrien garapenaren ildoan jarduera motela izan dela.

2.2.12 Enpleguaren eta gizarte politiken eremua

Europako herrialdeetan finkatutako bestelako enplegu eredu eta gizarte politiken ezagutza ikastea, bai eta enpleguari lotutako **Europako programa eta ekinbideetan parte hartzea** ere, **enpleguaren eta gizarte politiken arloan** jorratu ziren helburu biak izan ziren, eta hasieran *BCEn* aurreikusi ziren jomugak gainditu egin ziren. Horren ildotik doa *Lan Merkatuaren Behatokiaren Europako Sarean* eta *EURES sarean* inplikatzeko, bai eta *Europako TLN proiektuan* parte hartzea ere.

Europako Batzordeak saria eman zion Euskadi Lagunkoia ekinbideari, jokabide onetan puntuazio handiena lortu baitzuen, eta **gizarte berrikuntzara bideratutako biltzar eta konferentzietan hartu zuen parte**; horiek izan dira arlo honek burutu dituen ekintzarik aipagarrienak Euskadik gizarte politiketan dituen jokabide onak erakuste aldera.

2.2.13 Ogasunaren eta finantzen eremua

Ogasun eta finantza arloa ez zen kontuan hartu *BCE* diseinatu zenean, hala ere, arlo tematiko berri hau sartu zen 2014an.

Aldi honetan ogasunaren eta finantzen arloak **bere jarduera Europako esparruaren ildorantz bideratu du 2014-2020 EGEF Programaren Jarraipen Batzorde** batzuetan parte hartuz, eta Euskadiren interes sektorialak aldezttera, *POCTEFA* Espainia-Frantzia-Andorra mugaldearen integrazio ekonomiko eta soziala indartzeko programan parte hartuz. Bestalde, nabarmentzekoa da arlo honek estatistikako zenbait lantegitan parte hartu izana.

2.2.14 Etxebizitzaren eremua

Etxebizitzaren arloak egin duen jarduera **eraikuntza iraunkorreko Europako proiektuetan parte hartzea** bideratu da (*OSIRYS*, *FOSTERREG*, *PHOEBUS*, *BUILTSMART* eta abar) eta **eraikingintzaren kalitate kontrolerako laborategietan** parte hartzea; horrela, **Estrategiak zehaztu zuen eraikuntzako efizientzia energetikoko erreferentzia ereduak ikasteko jomugari ekin zitzaion.**

Hala ere, **etxebizitza politikan eta etxebizitza sozialaren kontzeptuan Euskadik duen esperientzia sustatzearen erronkari ez zaio ekin erabat**, nahiz eta **"Energiaren kudeaketa adimentsua etxebizitza publikoko eraikinetan" artikulua** argitaratu den, Gasteizko 176 etxebizitza sozialen kasu praktikoa azaltzeko.

2.2.15 Hezkuntzaren eremua

Hezkuntza arloak arrakastaz osatu du BCEn jasotako jomugak, esate baterako **Bigarren Hezkuntzako gazteen mugikortasuna** bultzatzea, Akitania-Euskadi euroeskualdeko ikastetxeen

artean trukea egiteko lankidetzaren proiektuen bidez ekin baitzaio. **Euskal Lanbide Heziketa nazioartekotzeari** ere ekin zaio, *Minnesota State University and Colleges*-ekin eta *Ipar Irlandako Gobernuarekin* hitzarmenak izenpetuz, elkarlanerako eta Lanbide Heziketa etengabe hobetzeko.

Oinarrizko hezkuntzaren esparruan **HEZIBERRI 2020 Plana** landu da, "Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arlorako Europako 2020rako lankidetzaren esparrua"-n jasotzen diren berrikuntza eta garapen ildo estrategikoak betetzera bideratuta.

Unibertsitate mailan **Nazioarteko Bikaintasunaren Eskualde Campusa** eratu da, Bordele, UPPA eta EHU unibertsitateekin, nazioarteko dimentsioa hartu behar duen erreferentziazko unibertsitategunea bihurtzeko. Txile eta Dominikar Errepublika bezalako herrialdeetako zenbait unibertsitateetako **ikasleak eta irakasleak prestatzeko hitzarmenak** ere izenpetu dira, eta *Jiangsuko Atzerri Gaietarako Bulegoaren eta EHUren artean Aditze Memorandum* bat sinatu da.

Ikerketa arloan **talentua erakartzea bultzatu da Research Professor eta Research Fellow programak** baliatuz, eta ikertzaileen arteko topaguneak antolatu dira koordinatzaile zutela *Ikerbasque*.

2.2.16 Hizkuntza politikaren eremua

Euskara nazioartekotzea hizkuntza politikaren arloko helburu nagusia zen, eta atzerrian euskal kulturaren **katedrak sortuz** ekin zaio, bai eta **Euskararen Eguna ospatuz** ere, euskara mundura zabaltzeko baliabide bat delako. Halaber, euskarari buruzko **zenbait konferentzia gauzatu dira**, *Etxepare Institutuak* bultzatuta.

HABEK lankidetzaren hitzarmenak egin ditu European, Ipar Amerikan, Amerika Latinoan eta Australian kokatuta dauden etxe batzuekin, euskarazko eskolak finantzatzeko eta Euskadiren hizkuntza politika sustatzeko. Ildo horretan, **Hizkuntza Aniztasunerako Europako Sarearen (NPLD)** lantalde eta mahai inguruetan hartu da parte; **sare horren presidentetza Euskadirena da 2015az gero**.

Iparaldearen kasuan, euskararen sustapena **Iparaldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin (Office Publique de la Langue Basque)** erakundearen arteko elkarlana eginez mantendu da, eta **Estrategian hizkuntza politikaren arloak planteatzen zituen helburu guztiei ekin zaie**.

2.2.17 Segurtasunaren eremua

Segurtasunaren arloan ekitaldi eta eztabaidagune profesionaletan hartu da parte, eta horrek **beste segurtasun agentziekin eta Europako erakunde batzuekin informazioa trukatzeko** lagundu du, **Ertzaintza beste herrialde batzuetako segurtasun gorputzentzat erreferentzia eredu** agertzeaz gain. Horren erakusgarri, *Europako poliziaren nazioarteko 19. biltzarra, Terrorismo Globalari buruzko 4. Elcano Eztabaidagunea (FETG)* edo *European Conference on Resilient Regions*, non arlo honek Ertzaintzaren bitartez hartu duen parte.

Era berean, **atzerriko gorputz diplomatikoen harremanak** izan dira, zenbait harrera ekitaldi eta topaguneren bidez, Ertzaintza Europolen sartu ahal izateko; izan ere, oraintsu gauzatu da sarrera hori Segurtasun Batzordearen barruko akordio batean, non adostu baita "Estatuaren Segurtasun Indar eta Gorputzen eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa areagotzea, euskal poliziaren integrazioa Estatuaren polizia foro guztietan handitzea, **Europako polizien**

informazioa sarbidea zabaltzea eta poliziaren ekintza arloetan eskumenak argitu eta zedarritzeko mekanismoak ezartzea".

Jakingarria da, nahiz eta Estrategian nazioartekotze helburutzat jaso ez den, 2014-2016 aldian zehar Europako *Arc Atlantique* eta *Space4Mobility* proiektuetan parte hartu dela segurtasunaren arloan.

2.2.18 Osasunaren eremua

Eskoziarekin Aditze Memoranduma izenpetu izanak edo *Danimarkarekin zahartze aktiboaz eta osasun berrikuntzaz esperientziak trukatu* izanak agerian jartzen dute **osasun arloak** lortu egin duela **beste herrialde batzuekiko harremanak indartzea**.

Ildo horretan, **Europako sare, partzuergo, konferentzia eta proiektuetan** parte hartzeak **osasun berrikuntzaren eremuan eta biomedikuntzaren ikerketan aitzindariak diren herrialdeekin harremanak estutzeko aukera eman du, eta ezagutza eta esperientziak trukatzea ahalbidetu du zahartzea edo osasunean IKT erabiltzea** bezalako eremuetan (*PICCOLO, TITAN, REF BIO II*, besteak beste).

Euskal ikerketa eta berrikuntza erreferentzia bilakatzea zahartze aktibo eta osasungarrian **EIP-AHA ekinbidean parte hartu izanak** islatu du, izan ere Euskadi horretan bada *Reference Site*.

2.2.19 Ingurumenaren eta lurralde politikaren eremua

Ingurumenaren eta lurralde politikaren arloak presentzia handitu du nazioarteko sare eta proiektuetan, eta hori osatu egin da **Europako Geoparke Sarean** eta *HISER, ENCORE* eta *D4A* proiektuetan parte hartuz, besteak beste. Nazioarteko presentzia zenbait konferentziatan parte hartuz ere bultzatu da, esate baterako **Eskualdeen Batzordeak eta nrg4SD sareak** antolatutakoak, eta 2014-2016 aldian egin ziren *Klima Aldaketari eta Dibertsitate Biologikoari buruzko Munduko Gailurretan* parte hartuz.

Ingurumenaren eta lurralde politikaren arloan jarduera gogorra egin da Euskadiren kanpo proiektioari dagokionez, mugaz gaindiko eskualdeekin batera ekintzak egitea helburu bat zen eta bete egin da, eta horren adibiderik adierazgarrienak Acción CLIMA (Pirinioetan jokaerak eta joerak aztertzen dituen txosten bat edukitzea xede duen ikerketa), Pirinioetako Lan Elkartearen (PLE) esparruan, edo Pirinioez gaindiko Konferentzia Atlantikoaren barruan Txingudi Badian ur masen egoeren lehen diagnostikoa egitea izan dira.

2.2.20 Garraioaren eremua

Akitania-Euskadi Transfermuga mugaz gaindiko projektuan parte hartzeak **garraioaren arloak** ezarri dituen nazioartekotzeko helburuetako bi lortzen lagundu du: Europako proiektuetan parte hartzea eta mugaz gaindiko lankidetzaren bultzatzea.

Euskadi nazioartean proiektatzeari dagokionez, aipagarria da arlo honek **Arku Atlantikoaren Batzordeak** antolatutako batzarretan eta Frantzia eta Erresuma Batuan antolatutako abiadura handiari buruzko jardunaldi batzuetan parte hartu izana. Ondorioz, arlo honetarako BCEk jasotzen zituen helburu guztiei **ekin zaie**.

2.3 Jardueren azterketa metatua ekintza eremu geografikoaren arabera

Eusko Jaurlaritzaren sailek eta horiei lotutako herri erakunde guztiek gidalerrotzat hartu dituzte **BCEn zehaztutako lehentasun geografikoak**, eta enfasi berezia jarri dute Estrategian helmugako herrialde izendatuta zeuden herrialdeetan nazioarteko jarduerak egiten

2.3.1 **Lehentasuna duten herrialdeetako ekintzak**

BCEn lehentasunezkoztat jotzen diren herrialdeetatik, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua dira 2014-2016 aldian zehar ekintza gehien jaso dituztenak. Iparraldeko herrialdeetan ekintza asko egin dira baina, hala ere, gutxiago. Ameriketako kontinentean nabarmentzen direnak **Estatu Batuak** eta **Kolonbia** dira batez ere, eta ondoren **Mexiko** eta **Brasil**.

Europar Batasuna bere osotasunean izan da nazioartekotzeko egin diren ekintzen jasotzaile nagusia, eta zehatzago **Frantzia eta Alemania**. Herrialde horiek biek dute lehentasuna bai *ikasi eta neurtzeko* bai *irakatsi eta trukatzeko*, eta baliteke horrek zerikusia izatea herrialde horietara bideratutako jarduera kopuru handiarekin.

Frantziaren kasuan 2015ean Parisen egin zen *COP21 Klima Gailurra*, turismo arloan egin diren azoka guztiak (*MAP, UTBM, ILTM* eta abar) eta Parisen egin zen **Manageable Cooperation EURAM 2016 Biltzarreko** “*The relationship between human capital and the investment in occupational health and safety: an empirical analysis*” txostena edo Euskampus Nazioarteko Bikaintasunaren Euroeskualde Campusean *Paueko eta Aturri Herriko Unibertsitatearen (UPPA)* eta *Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU)* arteko *elkarlana* dira burutu diren ekintzarik azpimarragarrienetakoak.

Hiru urteetan zehar, turismoaren arlotik eta nekazaritzaren eta arrantzen arlotik hainbat azokatarra joan izan da **Alemanian**; gainera, 2014an *SPRIren bulego bat ireki zen Munichen*. Segurtasunaren arloan zenbait **bilera eta lan gosari egin dira ordezkari alemanekin** eta kulturaren arloan *Glocal Cinema 2. lan bileran parte hartu da hegemonikoak ez diren hizkuntzetan egindako zinemagintza bultzatzeko*, Alemanian.

Iparraldeko herrialdeak eta Erresuma Batua ere sail eta erakunde publikoek burutu dituzten ekintzen helmuga nagusiak izan dira, eta azokak eta bilerak egin dira herrialdeetako gorputzetako batzuen ordezkariekin segurtasun arlotik. **Kultura eta hizkuntza aniztasunari** buruzko *TOSTA Cultural Cargo* proiektuak Gales, Eskozia eta Irlanda hartzen dituen, Erresuma Batua bideratuta dagoen ekintza azpimarragarrienetako bat da. Iparraldeko herrialdeen kasuan aipagarria da *Coordinated Atlantic Coastal Operational Oceanographic Observatory - My Coast Europako proiektua*, 2016az gero lan egin dena.

Ipar Ameriketako **Estatu Batuak** dira landu den herrialde nagusia eta Amerika Latinoan, **Kolonbia eta Mexiko**.

Hiru urteetan zehar **Ameriketako Estatu Batuak** izan da Euskadiren jardueren helmuga nagusietako bat. **Erakunde izaerako bidaia batzuez gain (horietako batean Lehendakariak hartu zuen parte)**, Etxe Zuriak bultzatu zuen *Recovering the Classics* proiektuan *New Yorkeko Liburutegi Publikoarekiko elkarlana*, hainbat azokatan eta *Climate Action 2016* gailurrean parte hartzea, bai eta Ameriketako unibertsitateekin **euskararen eta euskal kulturaren alde** *Ettxepare Institutuak* burututako **hitzarmenak eta katedrak** ere, ekintza nabarmenetako batzuk dira.

Mexiko eta Kolonbia, bestalde, *Ameriketako Klima Aldaketaren II. Gailurra*, Mexikon, eta *Herriarren Berrikuntzarako 3. Iberoamerikar Laborategia (LABIC)*, Kolonbian, biak 2016an;

horixetan parte hartzea gailentzen da, bai eta bidaia instituzional bi Lehendakaria buru zela egin zirenak ere.

Perun aipagarria da *kitxua biziberritzeko elkarlan protokoloa, Eusko Jaurlaritzaren eta Cuzcoko Udal Gobernuaren artean izenpetua*, eta Liman egindako *Biosferaren Erreserben 4. Mundu Biltzarrean (4WCBR) –Euromab–* parte hartu izana. **Brasilen**, batez ere, **turismo azokak eta alderantzizko jardunaldiak** egin dira.

Ikusgarria da zenbat hazi den **Asiara** begira egindako lana. Txina 2014-2016 denboraldi guztian ekintza gehien egin diren herrialdea da, nahiz eta Indian ere hainbat ekintza egin diren.

LHri eta euskal unibertsitateei 2014an **Txinara** egindako bidaia instituzionalaren bidez eman zitzaizen bultzada, *13th International Conference on Energy Storage Greenstock eraikingintzako kalitate kontrolerako laborategian* hizlari izatea 2015ean eta herrialdeko gorputz diplomatikoak Iñigo Urkullu Lehendakariari 2016an egin dizkion bisitaldiak dira herrialde honi eskaini zaizkion ekintzarik aipagarrienak.

2015ean SPRI **Koreara** joan zen alderantzizko misio baten bidez, eta bere kanpo sareko beste bulego bat ezarri zuen **Singapurren**. 2016an zuzeneko jardunaldiak egin zituen *Turespañaren* batera **Indian**, eta 2015ean *Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak* ekintzak finantzatu zituen.

Hegoafrikan gauza gutxi egin da eta *Kanpo Harremanen Zuzendaritzak* KwaZulu Natal eta Gauteng probintzietara egin zuen **bisita** batera mugatzen da. Hala ere, 2016an Afrikako kontinentean egin den lana zeharo areagotu da, eta *BCE* jasota ez zeuden herrialdeak landu dira, esate baterako **Namibia, Kongo, Angola** edo **Uganda**.

2.3.2 Lehentasunezko herrialdeetako ekintzak

2014-2016 aldian zehar, **lehentasuna duten Akitania, Bavaria, Eskozia eta Flandria eskualdeetan** ekintza ugari egin izan dira.

Akitaniaren kasuan, 2014an *Aditze Memorandum* bat burutu zen, eta eskualdeak Euskadirekin duen harremana sendotu zen **Akitania-Euskadi euroeskualdearen** esparruan, Eusko Jaurlaritzaren eta Akitaniaren arteko harremanak finka ditzakeen tresna baita. Ildo horretan, Euskadik presidentetza dauka 2015az gero Akitania-Euskadi *Lurralde Lankidetzarako Europako Taldean (AECT)*. **Proiektu** batzuk ere burutu dira, esate baterako *Transfermuga proiektua* eta *REF BIO II proiektua*, *Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA) 2014-2020 programak* finantzatuta.

2014an eta 2015ean hurrenez hurren, **Eskozia eta Bavariarekin** izenpetu ziren *Aditze Memorandumak*. Eskoziaren kasuan, Euskadik modu intentsiboan egin du lan eskualdearekin osasun arloan *European Innovation Partnership on Active and Healthy Ageing EIP-AHA* **elkarlan sarea** baliatuz eta **Osakidetzak** *Edinburgoko Digital Health and Care Conference* konferentzian parte hartuz. Osasun arloan **Euskadi-Eskozia proiektu bateratuak** ere burutu dira (*SCIROCCO, SHIELD, TRANSPOSE, PICCOLO, I-MOVE+* eta abar). **Bavariari dagokionez, Munichen SPRIren bulego komertzial bat ireki da, eta industria 4.0 eremuan eskumena duten Bavariako agintariekin estutu egin dira harremanak.**

Flandria-Euskadi hitzarmena 2015ean sinatu zen, eta **eskualde bien elkarlana eta lan bateratua** zehazten zuen osasun, ingurumen, kultura eta enplegu gaietan; horrekin batera *turismoaz, bakeaz eta gatazkaguneez elkarlana garatzeko Flandriaren eta Turismoaren Mundu Antolamenduaren (UNWTO) artean* hitzarmena sinatu zen 2016an. Horiek dira **Flandriarekin egin diren ekintzarik aipagarrienak.**

Eskualde horietako batzuek Euskadiren Kide Estrategikoen Sarea osatzen dute (Akitania, Flandria, Bavaria, Querétaro eta Txinako Jiangsu eskualdea).

2.3.3 Bigarren lehentasuna duten herrialdeetako ekintzak

2014-2016 hiru urtekoan **bigarren lehentasuna** eman zaien herrialdeetan egin izan den lana, batez ere, **Txilen, Argentinan, Irlandan eta Kanadan** egin da nagusiki.

Argentinan kokatuta dagoen euskal diaspora kontuan hartuta, herrialde hau modu intentsiboan landu da hiru urteetan. **Azokak, jardunaldiak eta katedrak** egin dira eta euskararen egunarekin zerikusia duten ekintzak antolatu dira.

Txile izan da, Argentinarekin batera, bigarren lehentasunezko herrialdeetatik ekintzarik gehien jaso dituen. Prestakuntzari eta hezkuntzari lotutako jarduerak burutu dira, ***Txileko Hezkuntza Ministerioarekin (MINEDUC) hitzarmenak*** eta euskararen zabalkundeari lotutako ekintzak eginez, esaterako *Hizkuntza Indigenen III. Biltzarrean* parte hartuz.

Euskadik harremanak estutu ditu **Irlandarekin**, Donostia 2016ko Europako Kultura Hiriburuaren (DSS2016) jardueren artean egindako *TOSTA Cultural Cargo* kultura eta hizkuntza aniztasunari buruzko proiektuaren bitartez, eta Dublinen egindako *Holiday Show azoka* bezalako **turismo azoken** bitartez.

Asian **Japonia** nabarmentzen da turismoari buruzko **azokak eta jardunaldiak** egin baitira eta *Japoniako enbaxadarekin lan bilera* egin zelako "Invest in the Basque Country" Estrategia aurkezteko. **Malaysia, Indonesia eta Vietnam nazioartekotze bekak** emanez eta atzerriko erakundeekin bilerak eta topaguneak antolatuz landu dira.

Ekialde Hurbila Arabiar Etxeak antolatutako konferentzia eta "Ekialde Hurbileko geopolitika ea demokrazia" gaiari buruzko FRIDE think tank baliatuz landu da, eta SPRIk egin dituen **jardunaldi eta alderantzizko misioak** ere bai.

2.3.4 Bigarren lehentasuna duten eskualdeetako ekintzak

BCEk bigarren lehentasuna ematen zien **Querétaro eta Jiangsu eskualdeak** ere landu dira 2014-2016 aldian.

2014an *Aditze Memoranduma* sinatu zen Mexikoko **Querétaro** estatuarekin, eta 2015ean *Jiangsu-Euskadi elkarlan hitzarmena* Euskal Herriko Unibertsitatearen eta **Jiangsuko** Unibertsitatearen artean proiektu bateratuak egiteko.

2016an *Querétaro estatuaren ordezkari baten bisita* eta *Jiangsuko Atzerri Gaietarako Bulegoaren Ordezkari baten bisita* jaso genituen eta *EHUren eta Jiangsuko Atzerri Gaietarako Bulegoaren artean Aditze Memorandum* bat izenpetu da.


Orokorrean eta ondorio gisa, badago esatea *Eusko Jaurlaritzak* Ordezkari baten bisita duen herrialdeetan jarduera handiagoa izan dela **BCEk** helburutzat jasotzen zituen beste batzuekin alderatuta.

Kide Estrategikoen Sarea ezarrita Euskadik eta sareko kide guztiek eragiteko gaitasun handiagoa lortu dute nazioartean. Bigarren lehentasuna duten **Bavaria** eta **Flandria** eskualdeak Sarea osatzen lehenak izan ziren 2014an eta 2015ean, hurrenez hurren.


Arlo tematikoei dagokienez, kanpo harremanen arloa eta turismo, kultura eta enpresak nazioartekotze arloak izan dira herrialde gehien landu dituztenak, 2014-2016 aldian, eta bilakaera handiagoa izan dutenak, eremu geografiko berrietara zabaldu direlako.

Ondorengo irudietan (9 eta 10) 2014-2016 urteetan ekin zitzaizen eremu geografikoak eta egindako ekintza kopuruaren arabera landutako eremu geografikoak azaltzen dira.

9. irudia. 2014-2016 aldian landu diren eremu geografikoak



10. irudia. 2014-2016 aldian ekintza askorekin landu diren eremu geografikoak



2.4 Ekintzen azterketa metatua Ikasi/Irakatsi ikuspegitik

BCEk bigarren ikuspen bat jasotzen du jarduteko eremu geografikoak zehazterakoan eta horiek lehen eta bigarren lehentasun kategorietan jartzerakoan. Ikuspen horrek motibazio desberdin biri egiten die erreferentzia, *ikasi eta neurtzea* eta *irakatsi eta trukatzeta*.

Ikasi eta neurtzeak Euskadirentzat erreferentziatzat hartzen diren beste herrialde edo eskualde batzuek hasitako ezagutza, esperientziak eta jokabide onak ikasi eta erakartzeko ekintzak hartzen ditu, bai eremu pribatuan bai politika publikoenean. **Irakatsi eta trukatzekak** nazioartean ezagutza, esperientzia eta jokabide onak transferitzeari egiten dio erreferentzia.

Oro har, **egin diren jarduera gehienak irakatsi eta trukatzekoak** izan dira, eta ekintza horiek Euskadiren ezagutza propioa kanporantz zabaltzeko erabili dira. Hori bat dator Estrategiaren beraren helburuarekin, izan ere, nazioarteko sustapena bultzatzen badu Euskadiren beraren interesak bultzatzeko eta ekonomia berraktibatzeke eragile izatea bilatzen duelako baita.

Lehentasunezko herrialde eta eskualdeak Eusko Jaurlaritzaren sailen eta lotutako herri erakundeek ikastoki izan dira, eta joera bat nabaritu izan da **ikasi eta neurtzea** bideratutako ekintzetarantz **Alemania, Frantzia edo Erresuma Batua** bezalako herrialdeetan. Enpresak nazioartekotzearen, segurtasunaren, enpleguaren eta gizarte politiken eta osasunaren arloak aktiboenak izan dira BCEn lehentasuna eman zaien herrialde eta eskualdeengandik ikasterakoan. **Irakatsi eta trukatzekaren** kasuan, landutako bost kontinenteetarantz bideratu da jarduera, baina nagusi izan da **Amerika Latinora** bideratutako lana.

Bigarren lehentasuna duten herrialde eta eskualdeetan kanpo harremanen arloa eta hezkuntzaren, hizkuntza politikaren eta enpresak nazioartekotzearen arloak, SPRIren lanari esker, aktiboenak izan dira *irakatsi eta trukatzekaren* aldetik. *Ikasi eta neurtzeari* dagokionez, 2014-2016 aldian ekintza gehien egin dituzten arloak kanpo harremanena, segurtasunarena eta garapenerako lankidetzarena izan dira.

Azterketa honen ondorio gisa, *Eusko Jaurlaritzaren sailei* eta mendeen dituzten herri erakundeek *ikasi eta neurtzearen* eta *irakatsi eta trukatzekaren* arteko bereizketa errazteko gidalerro batzuk ezartzea beharrezko ikusten da. Hiru urteetan zehar aztertutako informazioan, kasu batzuetan gertatu izan da aldeetako baten barruan zeuden ekintzak beste aldean ere egon zitezkeela. Hori da azoka, jardunaldi eta sinposioen kasua, izan ere Euskadiren jokabide onak atzerrian erakusten baitira, baina horrekin batera beste herrialde edo eskualde parte-hartzaileengandik ere ikasten baita.

3 Ondorioak eta gomendioak

Gobernu eremu guztietarako nazioartekotze politika integratu eta horizontal bat zehaztea, Euskadi-Basque Country marka sortzea, Euskadik European duen posizioa hobetzea, erakunde harremanak sendotzea batez ere lehentasunezko herrialdeekin eta kide estrategikoekin, sare tematikoetan txertatzeko akordioak bultzatzea, edo nazioarteko topagune garrantzitsuetan parte hartzea, horra hor 2014-2016 aldian 2020rako BCEren itzalpean erdietsitako lorpen nagusietako batzuk nazioartekotze arloan.

2014-2016 aldian *Eusko Jaurlaritzaren sailek* eta euren mendeko herri erakundeek burutu dituzten ekintzen gainean egin diren azterketei dagokionez, ondorio bat ateratzen da, hau da, **Nazioartekotzeko 2020rako Basque Country Esparru Estrategia** arrakastatsua izan dela eta neurri handi batean bete egin dela planifikatua, bai landu diren eremu geografikoei dagokionez bai ekintzak nazioartekotzeko lau bektore komunetarantz orientatzeari dagokionez.

3.1 Jarduerari jarraipena egitea

Jardueraren jarraipenari dagokionez, ondorio eta ohar hauek ateratzen dira:

- Azpimarratzekoa da **aztertu den informazioa zuzenean sail eta erakunde bakoitzak eman duela, inolako iragazkirik ez tratamendurik egin gabe Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak**. Hori izan da aurrera eraman den prozesua, txostengintzaren dinamika ezartzea nahiago izan delako informazioa bera tratatzea baino. Etorkizuneko jarraipenak egiteko, eman den informazioa homogeneizatu beharko litzatekeela deritzogu, nazioartekotzeko bektore komunak hautatzerakoan edo *ikasi eta neurtzeko eta irakatsi eta trukatzeko* alderdiak hautatzerakoan okerrak saihesteko.
- 2015 eta 2016 urteetako ekitaldiek datu argiago eta egituratuagoak izan dituztenez, errealitateari doituagoa egin ahal izan da horien azterketa BCEren lehen aplikazio urtealdian, 2014an, baino. Izan liteke **sailek Estrategia hobeto barneratzea** lortu delako gertatzea hori.
- **Hiru urteetan 1.481 ekintza egin dira** eta **goranzko joera** erakusten du: 2014an 324 ekintza egin ziren, 2015ean 503ra igo zen eta 2016an 654 ekintza egin ziren.
- **Nazioartekotzeko bektore komunik landuena 2014-2016 aldian V1. Euskadi kanpoan proiektatzea** izan da, ekintzen ekarpenen % 41,35 jaso baitu (1.734 ekarpen⁵). Turismoaren eta kanpo harremanen arlo tematikoak izan dira hura betetzen gehien lagundu dutenak.
- **Gutxien landu den nazioartekotzeko bektore komuna V3. Europako esparruarekin lerrokatzea** izan da, ekarpen guztien % 11,3 jaso baitu⁶.

⁵ Ikusi 2. oharra.

⁶ Ohar argigarria: 1. bektoreari –Euskadi kanpoan proiektatzea– eta 2. bektoreari –interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea– lehentasuna eman zaienez hiru garren bektorearen aldean, Europako esparruan egin diren arren lehen edo bigarren sektorearekin ere lerrokatu diren ekintzetan, horren ondorioz, bada, Europaren esparruan egin diren ekintzetariko batzuk beste bektore batzuei lagundu dieten arren, ez dira zenbatu nazioartekotzeko hiru garren bektore komunean.

- Zenbait herrialdetan **Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaritzak** eta **SPRIren kanpo sareko bulegoak** edukitzea **ekintzen dinamizatzailea** izan da, eta Euskadik herrialde horiekin izan duen elkarrekintza katalizatu dute.

3.2 Nazioartekotzeko helburuen jarraipena egitea

BCEn jasotako nazioartekotze erronka eta helburuak gaikako arloen arabera betetzeari dagokionez, ondorio hauek ateratzen dira:

- Oro har, *Eusko Jaurlaritzaren sailen* eta horiei lotutako herri erakundeen **nazioarteko jarduera areagotu eginda**, eta nazioarteko erakunde eta sareekiko harremanak estutu dira.
- Kanpo Harremanen arloa aktiboenetakoa izan da Euskadi nazioartekotzearen arloan, sailen arteko eta erakundeen arteko koordinazio lana egin behar baitu eta **Euskadiren interes multisektorialak aldeztu behar baititu atzerrian**.
- Enpresak nazioartekotzeko arloak modu intentsiboan sustatu du **euskal enpresak kanpoan finkatzea** eta Euskadik kluster politikan duen esperientzia zabaldu du mintegietan, biltzarretan eta konferentzietan parte hartuz.
- Kulturaren eta hizkuntza politikaren arloek **euskara eta euskal kultura nazioartekotzeari** ekin diote Euskal Etxekin kontaktuak eginez, Euskararen Egunaren bitartez, eta nazioarteko konferentzia, azoka eta sareen bidez.
- **Euskadi erreferentziako turismo helmuga moduan sustatzea** bai Europaren barruan bai kanpoan azoketan parte hartuz egin da, besteak beste Euskadi landa turismoan eta turismo enogastronomikoan helmuga egoki moduan kokatzen.
- **Europako proiektu garrantzitsuetan parte hartuz Europara zabaltzeari eta berritzaleari** ekin zaio zenbait arlo tematikotan, esate baterako osasunaren, etxebizitzaren eta ingurumenaren eta lurralde politikaren arloetan.
- **Euskadirentzat lehentasunezkoztat jo diren eskualdeekin harremanak** egin dira, hala nola Eskozia, Flandria eta Ipar Irlandarekin, eta Akitaniarekiko harremanak estutu egin dira hitzarmenak eta proiektu komunak eginez.
- Aipagarria da **Euskadik presentzia izatea erreferentziako nazioarteko sareetan** arlo ugarian eta konferentzia, mintegi eta biltzar askotan parte hartzea, hainbat gairi buruz, hots, garraio iraunkorra, genero berdintasuna, zientzia, teknologia eta berrikuntza eta garapenerako lankidetzak.
- Gobernu Irekiaren eta Ogasunaren eta Finantzen arloak, BCEn kontuan hartuta ez bazeuden ere, **Euskadiren presentzia bai Europa barruan bai kanpoan bultzatu dute**.

3.3 Ardatz geografikoak

2014-2016 aldian ekin zaien eremu geografikoei eta horien bilakaerari dagokionez, ondorio hauek aipa daitezke:

- 3.1 atalean esandakoaren ildotik, koherentea da esatea, *Eusko Jaurlaritzari* lotutako erakunde batzuk izateari esker, eremu geografiko batzuetarako egin den jarduerak eragin handia izan duela. Era berean, egitura horiek beste herrialde batzuetara hedaturik jarduera gehiago egon dela eta etorkizunean ere areago egongo dela. Hori da *SPRI*ren bulego bat Munichen 2014an edo Singapurren 2015ean irekitzearen kasua.
- **Lan handia egin da Kide Estrategikoen Sarea josten**, arlo tematiko bat baino gehiago inplikaturik eta Euskadirentzat lehentasunezkoak diren eskualdeekin harremanak sendotuz, esate baterako Flandria edo Bavariarekin.
- **Akitania eta Eskozia eskualde landuenak izan dira 2014-2016 aldian**, baina **Bavaria eta Flandria** ere lan handiaren hartzaile izan dira. **Jiangsu** eta **Querétaro** eskualdeak ere landu dira neurri apalagoan.
- **Estrategia Europara eta Amerikara mugatu da** batez ere, eta orain erreferentzia geopolitikoak diren herrialdeak, Errusia, Turkia eta India adibidez, ez dira modu intentsiboan landu.
- Eremu geografikoetan **lehentasuna** dutenak izan dira landuenak hiru urteetan zehar. *BCE* lehentasuna ematen zien herrialdeetatik **Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Ameriketako Estatu Batuak** gailentzen dira. **Bigarren lehentasuna** duten eremuetatik **Txile, Argentina, Irlanda eta Kanada** dira gehien ekin zaienak.
- **Asian Txina** nabarmentzen da *Eusko Jaurlaritzaren* nazioarteko lanaren hartzaile den herrialde nagusi moduan. 2015 eta 2016an aipagarria izan da Asiako hego-ekialdeko herrialdeekin harremanak egiten gora egin dugula nabarmen, hau da, **Malaysia, Indonesia, Japonia eta Vietnamekin**.
- **Hegoafrika** 2015ean landu zen eta 2016an presentzia handitu zen, irakatsi eta trukatzeko lehentasuna duen helmuga gisa finkatuz.
- Azpimarratzekoa da **Afrikak** izan duen jarduera 2016an, **harremanak ezarri baitira herrialde batzuekin nahiz eta ez egon jasota BCE**n (Mauritania, Senegal, Kongo, Namibia, Angola, Nigeria, Uganda eta Sahara).
- Estrategiak zehaztu ez zituen arren, *Sailen* eta erakundeen ekintzak jaso dituzten **herrialdeak** landu dira. Alde horretatik, **Australia, Zeelanda Berria, Venezuela, Costa Rica, Uruguai eta Paraguai nabarmendu dira**.

3.4 **Ardatz tematikoak**

Jardueraren ardatz tematikoei dagokienez hau ikusten da:

- 1. bektorea, Euskadi kanpoan proiektatzea, eta 2. bektorea, interes sektorialak sustatu eta bultzatzea eta erronka globalei laguntzea, 2014-2016 hiru urtekoan jarduera gehiago izan dutenak dira. Gertaera hori koherentea da Euskadik **ezagutza esportatzeko potentzial handia** duelako arlo esanguratsuetan, esate baterako kulturean, industrian, hezkuntzan edo osasunean, eta horrek **bere know how** guztia kanpoan erakusteko eta bere interes multisektorialak nazioartean garatu eta aldezteko gaitasuna duen eragile baten lekua ematen dio.

- **BCE aplikatu zen lehen bi urteetan arlo berri bi sartu ziren**, hasieran pentsatuta ez zeudenak: **ogasunaren eta finantzen arloa** (2014an sartu zena) **eta Gobernu Irekiaren arloa** 2015ean erantsia. Gertaera honek adierazten du Estrategia doitzeko mekanismoren bat sartu behar dela, erraz eguneratzeko eta, horrela, zehaztu zenean jaso ez ziren arlo tematiko berriak eransteko.
- **Irakatsi eta trukatzea** da ekintza gehien izan dituen, baina **ikasi eta neurtzeak** ere jarduera garrantzitsua izan du arlo tematiko batzuetan. Hala ere, nagusitasun horrek agerian uzten du **Euskadik atzerrian proiektatzeko duen gaitasuna**, eta nazioartean duen **lehiarako posizioa** ere bai.

3.5 Azken ondorioa

Azken ondorio moduan, **Estrategia 2014-2016 aldiari arrakastaz aplikatu dela** esan behar da, bai landu diren eremu geografikoen ikuspegitik bai *Eusko Jaurlaritzaren sailek* eta lotutako erakundeek kontatu duten gero eta jarduera ugariagoaren aldetik. Etorkizunera begira **gainerako erakundeak eta gizarte zibil guztia inplikatu behar duen Herrialde Estrategia baterantz eboluzionatu** behar dela deritzogu, eta horretarako hiru zutabetan oinarrituko den lan bateratua egin behar da: enpresa, akademia eta gizartea.

Horrela, frogatuta geratu da nazioartekotzea Euskadin jokabide finkatua eta *Eusko Jaurlaritzak* barneratua dela; gainera, arlo guztiak zeharretara harrapatzen dituela jakitun da. Hala ere, Estrategia eguneratzeko erakunde barruko eta erakunde arteko koordinazioa hobetu behar da.

Estrategia zehaztu zen unean lau izan ziren zutabetzat hartu ziren arlo tematikoak (kanpo harremanak, enpresak nazioartekotzea, turismoa eta kultura), baina, aplikazioak aurrera egin ahala, **goraka joan da arlo tematikoek Euskadi nazioartekotzeko eta Basque Country marka atzerrian zabaltzeko egin duten ekarpena**. Gertaera horretatik dator Estrategia barneratzen eta heltzen izan den aurrerapena, eta *Eusko Jaurlaritzaren sail* guztiek Euskadiren langintza ona atzerrian erakutsi beharra.

Aipagarria da **ekintza kopuruak izan duen gorakako joera** arlo tematikoen arabera, tartean diren erakunderik gehienengoen aldetik inplikazio handiagoa azalduz.

Handia da *BCE*ren jarraipen mekanismoak ezartzeko egin den ahalegina, baina egokitzen jotzen da Estrategia agiri bizitzat hartzea, beharren arabera eboluzionatzeko gai izan beharko lukeen dokumentutzat.

Estrategia onartu zen unean adierazi zen bezalatsu, esparru jakinetan garatu beharreko ekintza ildoak eta ekintzak konkretatuko lituzketen *Nazioartekotzeko Plan Sektorialak* zehaztea eta onartzea ekar lezake hura martxan jartzeak. *Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak* eta *Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak*, enpresa eremuaren arduraduna denak, 2014an zehaztu zituzten euren Plan Sektorialak eta emaitza ederrak izan dituzte.

Plan Sektorial horiek, banaka garatu badira ere, zuzenean lotuta daude *BCE*ekin eta onuragarriak izan dira Estrategia aplikatu eta aurrera eramateko.

I. eranskina

4. taula. Jarduerak arlo tematikoen arabera nazioartekotzeko bektore komunei laguntzen 2014an

Arlo tematikoak ⁷	Bektoreak				
	V1	V2	V3	V4	Guztira
KANPO HARREMANAK	30	44	15	6	95
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA	4	9	-	4	17
KULTURA	29	22	-	4	55
TURISMOA	46	46	-	1	93
BAKEA ETA BIZIKIDETZA	2	3	3	2	10
GARAPENERAKO LANKIDETZA	2	1	1	1	5
BERDINTASUNA	6	6	4	6	22
GOBERNU IREKIA	-	-	-	-	-
HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA	3	-	3	4	10
ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA	-	-	-	-	-
ENERGIA	-	-	-	-	-
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-	3	-	-	3
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	4	12	8	6	30
OGASUNA ETA FINANTZAK	-	-	-	5	5
ETXEBIZITZA	1	-	-	3	4
HEZKUNTZA	24	6	9	22	61
HIZKUNTZA POLITIKA	6	6	-	-	12
SEGURTASUNA	-	6	8	-	14
OSASUNA	2	5	2	5	14
INGURUMENA ETA LURRALDE POLITIKA	21	9	11	6	47
GARRAIOA	6	13	-	2	21
GUZTIRA	186	191	64	77	518

5. taula. Jarduerak, arlo tematikoen arabera, nazioartekotzeko bektore komunei laguntzen 2015ean

Arlo tematikoak	Bektoreak				
	V1	V2	V3	V4	Guztira
KANPO HARREMANAK	27	43	13	3	86
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA	42	42	3	13	100
KULTURA	41	22	3	1	67
TURISMOA	21	21	-	3	45
BAKEA ETA BIZIKIDETZA	-	2	-	-	2
GARAPENERAKO LANKIDETZA	25	4	-	-	29
BERDINTASUNA	16	-	2	2	20
GOBERNU IREKIA	3	-	-	-	3
HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA	1	-	1	-	2
ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA	-	-	-	1	1
ENERGIA	-	-	-	-	-
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	-	3	-	-	3
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	2	4	13	8	27
OGASUNA ETA FINANTZAK	1	-	-	7	8
ETXEBIZITZA	-	9	-	11	20
HEZKUNTZA	9	9	-	1	19
HIZKUNTZA POLITIKA	28	7	1	-	36
SEGURTASUNA	10	3	10	4	27
OSASUNA	12	1	-	9	22
INGURUMENA ETA LURRALDE POLITIKA	10	2	11	5	28
GARRAIOA	3	4	-	3	10
GUZTIRA	251	176	57	71	555

⁷Kanpo harremanen arloaren kasuan, ekintzek nazioartekotzeko bektoreei egiten dizkieten ekarpenak zenbatesteko metodologia 2015ean aldatu zen Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren eskariz. Metodologia berri hori 2015 eta 2016ko jarraipenetan aplikatu zaio arlo honi.

6. taula. Jarduerak, arlo tematikoen arabera, nazioartekotzeko bektore komunei laguntzen 2016an

Arlo tematikoak	Bektoreak				
	V1	V2	V3	V4	Guztira
KANPO HARREMANAK	42	80	26	2	150
ENPRESAK NAZIOARTEKOTZEA	-	17	-	3	20
KULTURA	21	5	4	-	30
TURISMOA	41	-	-	-	41
BAKEA ETA BIZIKIDETZA	-	3	-	-	3
GARAPENERAKO LANKIDETZA	32	-	1	-	33
BERDINTASUNA	9	-	3	-	12
GOBERNU IREKIA	3	-	-	-	3
HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA	-	-	2	-	2
ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA	3	14	2	2	21
ENERGIA	-	-	-	-	-
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2	19	12	-	33
ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	11	3	11	1	26
OGASUNA ETA FINANTZAK	2	1	1	2	6
ETXEBIZITZA	1	15	2	15	33
HEZKUNTZA	30	19	-	8	57
HIZKUNTZA POLITIKA	7	1	1	-	9
SEGURTASUNA	39	36	6	22	103
OSASUNA	14	8	-	18	40
INGURUMENA ETA LURRALDE POLITIKA	23	1	1	7	32
GARRAIOA	-	4	3	-	7
GUZTIRA	280	226	75	80	661